

**Bizipenen
maletak
Tolosaldeaz
beteta**

ataria



Kultura
*Bartzelonatik datozen
antzerki ikasleek,
lau areto beteko
dituzte Zizurkilen*

Gastronomia
*Tolosa Goxua azoka
berezian, 4.000
Pitxi-pitxi gozo
banatuko dituzte*

2016-10-28
570 zenbakia
107.6 fm
www.ataria.eus

www.multiopticasgipuzkoa.com   

**2 mó betaurreko
graduatu**
erreflexuen aurkako
leiarrekin
97€

ARRASATE • BERGARA • BEASAIN • DONOSTIA • EIBAR • ERRENTERIA • IRUN • LASARTE • ORDIZIA
Kontsulta itzazu zirene optikan kainpaina ezagarrak. Ezingo da beste e-skaitza biltzuetan erabili.

San Frantzisko, 23 • Tel. 943 69 84 70 • TOLOSA

MULTIÓPTICAS
lehena zerbitzu optikoetan

Bihar
nolako  nahiko
zenuke?

Inkesta
ataria.eus
webgunean
edo deitu:
943 65 56 95

Lagundu erabakitzenean
3 minuto
besterik ez dira

Eman zure
erantzuna
igandea
baino lehen

Eskerrik asko!



ALUSTIZA
margolariak

TOLOSA
606 595 308

Zainduak izatera kondenatuak

Maddi duela 5 hilabete jaio zen. Hasieran bi ahots entzuten zituen, bi magal sentitu eta lau begiren begiradak jaso; orain ordea, falta dira. Ez beti, batzuetan badaude baina ez denbora osoan. Bera bezala negar egiten duten beste haurrekin dago Maddi, eta ahotsak, magalak eta begiradak, denak egiten zaizkio ezezagun.

Arantxak 85 urte ditu. Hiru seme-alaba izan zituen eta 70 urterekin alargundu. Biziak osoa eman dio bere familiaren zaintzari, eta etxeak bakarrik geratu zenean hasi zen bere burua zaintzen. Duela bost urtetatik ordea, ez da gai bere burua zaintzeko; gorputza geroz eta ahalago du eta laguntza behar du.

Aitor eta Amaia Maddiren gurasoak dira. Etxetik kanpo egiten dute lan biek eta guraso izatea erabaki zutenean, ez zekiten nola uztartuko zitzuzten lana eta haurrentzain zaintza. Eta orain konturatu dira ez direla erraz uztartzten, ez behintzat ezeri uko egin gabe. Biek lanean jarraitu ahal izateko, haurrentzaindegira eramatzen dute Maddi.

Mikel Arantxaren hiru seme-alabetako bat da. Bere

Berak ezin dio egun osoan lagundu. Lotsa ematen dio horrenbeste urtetan bera zaindu duen amari, orain berak ezin duela zaindu esatea. Baina hala da, ezin du, ezin du lana utzi ama zaintzeko

anai-arrebak ez dira herrian bizi eta berak pasatzen du denbora gehien amarekin. Lehen bisitan joaten zen baina orain, laguntza behar du egun osoan. Eta berak ezin dio egun osoan lagundu. Lotsa ematen dio horrenbeste urtetan bera zaindu duen amari, orain berak ezin duela zaindu esatea. Baina hala da, ezin du, ezin du lana utzi ama zaintzeko.

Elena Jimenezi entzun nion aurrekoan Info7 irratian: «Kapitalismoak ez dio amatasunari balioa eman, ondo maneiatsuaren duen moral bikoitzarekin. Alde batetik, balio ekonomikoa kendu dio, eta horrekin batera, baita emakumeari eskubideak iza-teko aukera ere. Azken finean, lan-merkatuan egonda lortzen dira eskubideak: segurtasun ekonomikoa, seguritate soziala, pentsioak... Baina aldi berean, amatasuna beharrezkoa dutenez horretarako eginak gaudela esan digute emakumeoi, amatasuna aukera bezala ez ikusteraino».

Azpimarratzeko moduko ideia asko ditu aipu horrek, eta hemen bat: lan-merkatuan egoteak eskubideak (segurtasun ekonomikoa, seguritate soziala, pentsioak...) ematen dizkigu; beraz, hortik kanpo egoteak kendu. Gaur egun, etxeko zaintzaile izateak lan-merkatutik aterarazten gaitu eta ondorioz, etxeko zaintzaile izateak eskubideak galarazten dizkigu.

Zainduak izatera kondenatuak gaude bizitzako etapa askotan; denok, salbuespenik gabe. Zaintza hori bermatzen duen zaintzaileak eskubideak galtzea, horixe da jendarte honek izan lezakeen kondenarik gogorrena.

ARGITARATZAILEA: Tolosaldeko Komunikazio Taldea, SM **LEGE GORDAILUA:** SS-1323-2013 **KOORDINATZAILEA:** Naiara Roldan de Arangiz **KUDEATZAILEA:** Jexux Murua **TELEFONO:** 943 655695 **WEBGUNEA:** www.ataria.eus **POSTA ELEKTRONIKOA:** ataria@ataria.eus **IRRATIA:** 943 6980 38 · 687 4100 33 · FM107.6 **PUBLIZITATEA:** 661678818 · publi@ataria.eus

ATARIAk ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanetan eta iritziz erantzukizun.



URTEKO HARPIDETZA KUOTA: 77 €

TOLOSALDEKO ATARIA DIRIZ LAGUNTZEN DUTEN ERAKUNDEAK:

Udalak: Abaltisketa, Aduna, Alegia, Alkiza, Albiztur, Altzo, Ametzeta, Anoeta, Asteasu, Balmaseda, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Goiatz, Elduain, Gatzelua, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Orexa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

TOLOSALDEKO KOMUNIKAZIO TALDEA, SM-KO KIDEAK:

BERTAKO HEZKUNAK
 galtzundi

Tolosaldeko gizarte eragileak

berria

Txokoerre



Gipuzkoako Foru Aldundia



Azaleko irudia:
Itzea Urkizu

Aldarrikapena munduratzeko asmoz

Etxerat elkartea deitura, elkarretaratzea egin eta informazioa banatuko dute, abesbatza lehiaketaren harira

I. Garcia Landa

Hileko azken ostirala da gaur eta, ohiko moduan, euskal preso eta iheslariak etxeratzeko elkarretaratzeak antolatu dituzte eskualdeko hainbat herritan. Ohi bezala ere, deialdia egin die herritarrei parte hartzeko kontzentrazioetan. Hilera egiten diren elkarretaratze horiei, datorren asteartan beste bat gehituko zaie, Tolosako Abesbatza Lehiaketaren sari banaketa dela eta. Pepi Gorostidi Etxerat

elkarteko kideak azaldu duenez, «mundu guztitik eterriko dira abesti ederrak kantatzera, eta guk hor jarraituko dugu gure abesti tristarekin».

Leidor aretoaren kanpoaldean elkartuko dira, 10:45ean hasi eta sari banaketa ekitaldia hasten den arte. «Kultur mailan egiten den lan hori oso ederra da, baina zoritzarrez guk hemen dugu beste errealtitate bat ez dena hainbeste azaltzen», esan du Gorostidik. «Lehiaketara kanpotik hainbeste jende etortzen denez, aprobetxatu nahi izaten dugu ezagutu dezaten Euskal Herriaren beste errealtitatea, ezkutuan dagoena».

Beste urteetan ere egin dute Etxeratetik elkarretaratzea abesbatza lehia-

GAURKO ELKARRETATZEAK

- Aduna.** 20:00.
Alegia. 19:30.
Altzo. 19:00.
Amasa-Villabona. 20:00.
Amezketa. 19:30.
Anoeta. 19:30.
Asteasu. 20:00.
Berrobi. 19:30.
Berastegi. 19:30.
Ibarra. 19:30.
Ikaztegieta. 20:00.
Irura. 19:30.
Gaztelu. 19:30.
Lizartza. 20:00.
Tolosa. 19:30.
Zizurkil. 20:00.

keta dela-eta. Jendea joaten zaiela galdetzera azaldu du Gorostidik, eta informazioa banatzen dietela hizkuntza ezberdinietan.

SALVA VALLEJO GILEN ARGAZKIA, IRABAZLE

Tolosako 2017ko egutegia osatu dute jada. *Tolosako komertzioak* da dato-rren urteko egutegiak duen gaia eta irudiak aukeratzeko TolosanKlisk lehiaketa egin dute, urteroko moduan. Aza-leko argazkia Salva Vallejo Gilen *Vinos y conservas* izango da eta azala izateko ohorea eskuratzearaz gain 500 euro jasoko ditu. Egutegiko gainontzeko argazkien egileek 100 euro jasoko dituzte. Irudian, Vallejo Gil saria jasotzen Olatz Peon alkatearen eskutik. ATARIA



 **tolosaldeko
ataria**

Zure iragarkia jartzeko:
661 67 88 18
publi@ataria.info



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



Pello Mari Otañoren omenez antolatzen dute bertso-paper lehiaketa. ATARIA

Abian da III. Pello Mari Otaño Bertso-Paper Lehiaketa

Adinaren arabera hiru mailetan banatu dute lehiaketa; bertso lanak aurkezteko epea azaroaren 18an amaituko da

Erredakzioa Zizurkil

Martxan da Zizurkilgo Hernando-rena Kultur Elkarteak eta Haritzuz Bertsozale Elkarguneak elkarlanean antolatutako lehiaketa. Zizurkilgo Errekalde baserrian sortu zen Pello Mari Otaño bertsolari ezagunaren omenez antolatu zen lehen aldiz lehiaketa, bertso-paperetan utzi zuen ondarea bide. Aurtengoa hirugarren aldia da.

Hirugarren edizio honek funtsa mantenduko du baina hainbat alda-keta dakartza. Batetik, aurten ez da diaspora atalik izango; horren ordez, hiru adin atal bereiziko dira: 14 urte artekoak, 14-18 urte bitartekoak eta 18 urtetik gorakoak. Bina sari izango dira adin tarte bakoitzarentzat. 14 urte artekoen lehenengo sariak pergaminoa, trofeoa eta 100 euroko erosketa balea, eta bigarren sariak pergaminoa, trofeoa eta 50 euroko erosketa balea. 14-18 urte ar-

tekoei dagokionez, lehenengo saria 250 eurokoa da eta bigarrena 125 eurokoa. Azkenik, helduen sailean, lehen saridunak 500 euro jasoko ditu eta bigarrenak 250 euro.

Bestetik, sari banaketak bertso jarri-en gauarekin bat egingo du. Harituz Bertsozale Elkarguneko kideek azken urteetan egindako afalosteko bertso kantaldia sari-banaketaren ostean izango da (abenduaren 3an). Beraz, sari-ruet ere euren sorta abestu ahal izango dute musikarien laguntzaz, es-kualdeko gainerako bertsolarien sortekin batera.

Gainerako baldintzak ohikoak izango dira: bertsoen gaia eta neurriak li-break izango dira eta epaimahaia Haritzeko kideek osatuko dute. Lanak bidaltzeko azken eguna azaroaren 18a izango da eta lanak era anomimoan helarazi beharko dira info@hernandorena.eus helbide elektronikora edo Hernandorena Kultur Elkartearen egoitzara: PK. 22; Iriarte etxea, Pello Mari Otaño plaza, 20159 Zizurkil.

Informazio gehiago eskuratzeko info@hernandorena.eus helbidera idatzi daiteke edo 656743741 telefono zenbakira deitu.

Gamesa eta Siemens enpresek bat egin dute

Asteasuko Echesa enpresa Gamesa konpainiaren barruan dago; egun lan hitzarmena negoziatzen ari dira bertan

Erredakzioa Asteasu

Gamesa eta Siemens enpresek bat egitea erabaki dute. Gamesaren egoitza nagusia Zamudioko teknologia parkean eta Sarrigurenen daude. Bost fabrika ditu Euskal Herrian eta haize erroten biderkatzaileak egiten dituzte, adibidez, Asteasuko Echesa lantegian.

Oraingo Gamesaren eta Siemensen aktibo eolikoak batu ondoren sortuko den konpainia munduko liderra izango da sektore eolikoan, %14ko merkato kuotarekin.

Gamesak Indian, Latinoamerikan eta Txinan duen indarrari batuko zaio Siemensek Europan eta *offshore* teknologian duen nagusitasuna. Oraingo 7.200 langileei -horietako 200 inguru Asteasuko Echesa lantegian aritzen dira-, 15.000 batuko zaizkie konpaina berrian.

Echesako langileen kezka

Alemaniako multinazional erraldoi baten menpeko izatera igaroko da Gamesa. Egoera horrekin kezka agertu dute Echesako langileek, eta «erabakigunea urruntzeak beti arriskua dakkrela» esan dute. «Esaten digute ez dugula beldurrik eduki behar, ona izango dela guretzat, lan gehiago izango dugula, beste merkatuetara zabaldu eta itsasoko merkatua gertuago izango dugula. Baina beldur gara, ez ote den Arcelorren bezala gertatuko. Atzerriko jabeak tarteko direnean, batek daki», gaineratu dute.

Hain zuzen, lan hitzarmena negoziatzen ari dira Echesako langileak enpresa ordezkariekin. Aurre akordioa lortu dute eta aurreko asteetan egin dituzten lanuzteak bertan behera utzi dituzte, momentuz. Datorren asterako hitzarmen berria sinatzea espero dute langileek.

Bartzelonatik dator funtzioa

Zizurkilgo lau areto ezberdinetan lau proposamen izango dira bihar arratsaldean antzerki ikasleen eskuik

Jon Miranda


Bartzelonako Institut del Teatren ikasten du Hodei Arrastoak (Zizurkil, 1995). Azken bi urteetan bere ikaskideekin batera esketx laburrak eskaini izan ditu bere herrian. Aurten, proposamen berri batekin dato: «Madrilén, Bartzelonan eta beste tokian askotan eskaintzen dira mikoteatroak. Denbora guztian aktibo dauden areto txikietan eskainitako piezak dira. Publikoa da areto batetik bestera mugitzen dena», dio Arrastoak.

Joxe Arregi plazaren inguruan azken urtean egin diren moldaketak iksita otu zitzaison ideia zizurkildarrari: «Plazida Otañoko liburutegia zabaldu zutenean jabetu nintzen espazio ezberdinak egon zitezkeela horrelako proposamen bat egiteko». Atxulondo kultur etxeko areto nagusia eta dantza gela (garai bateko liburutegia) eta Plazida Otañoko aretoa eta liburutegia baliatuko dituzte antzerki saioak eskauntzeko, bihar, 19:00etan.

Antzerki motak ikusgai

Lau proposamen ezberdin egongo dira aukeran Zizurkilen, «propio saiatu gara barietatea bilatzen, antzerkia egiteko modu desberdinak erakutsi nahi baititugu».

Commedia dell'arte delakoa XV.



mende bukaean Italian sortu, European barrena zabaldu eta gaurko eguna arte iraun duen antzerki generoada. Atxulondo kultur etxeko areto nagusian eskainiko dute saio hori Arrastoa azaldu duenez: «Pertsonaia tipifikatuetan oinarritutako antzerki mota da eta maskarak erabiltzen dira. Pertsonaia horietan oinarrituta inprobisatutako antzerkia egingo dute aktoreek. Eskema bat izango dute, alegia, jakingo dute non bukatuko duten baina ez nola iritsiko diren amaiera horretara. Publikoak ematen duenarekin, edo aretoan gertatzen denarekin momentuan bertan inprobisatuko dute. Hori baliatu beharko dute antzezteko».

Bartzelonako eskolan antzerki fisikoak landu izan du gehienbat Arrasto-

ak azken urteetan eta proposamen hori ere ekarri nahi izan dute Zizurkilara. Atxulondo kultur etxeko dantza gelan bi neska ariko dira eta Decroux teknika erabiliko dute. «Kontzentzia korporala edukitzeko teknika da. Gorputzko parte guziak disezkionatzearan datza, eta ikasten dugu adibidez lepoa mugitzen, sorbaldak igo gabe, edo gerria jiratzen belaunak mugitu gabe», dio Arrastoak.

Aitzondoko liburutegi berrian, testu batean oinarritutako bakarrizketa eskainiko du beste aktore batek. Caryl Churchillen *Lejos* obra aztertu zuten iaz eskolan eta bertako lehen eszenan oinarritutako moldaketa da eskainiko duena.

Bi herrien arteko elkarlana

Plazida Otaño liburutegiko aretoan, berriz, antzerki musikalda bihar eskauniko dutena. Bartzelonatik etorri-tako aktoreei laguntzen eskualdeko musikariak ariko dira: Loatzo musika eskolako bi irakasle eta beste bi herriar. Besteak beste, Ella Fitzgerald eta Frank Sinatraren kantuak eskainiko dituzte. Entsegu nagusia bihar egingo dute, baina horretarako aurrez dena ondo lotuta eduki beharra dagoela azpimarratu du Arrastoak, «ni nabil koordinazio lana egiten, guztia bideratzen. Aurten ez dut antzeztuko eta zuzendari bezala ariko naiz».

Hamar lagun etorriko dira Bartzelonatik. Zortzik antzeztuko dute eta beste bik areto batetik bestera bideratuko dute publikoa. Horietako batzuk le-



harpidedun izateak badu saria saridunak

1 TOPIC

Tolosaldeko Nazioarteko Txotxongiloen Zentroa
Bi lagunentzako bina sarrera

- Izaskun Mateo (Tolosa)
- Andres Vitoria (Tolosa)




www.topictolosa.com

Euskal Herria plaza, Tolosa • 943 65 04 14
Bi hilabeteko epea saria erabiltzeko

2 Donostiako Aquariuma

Bi lagunentzako bina sarrera



- Maitane Jauregi (Albiztur)
- Ametza Elola (Irura)

Bi hilabeteko epea saria erabiltzeko

3 Rubioren Jatetxea

Bi lagunentzako
bazkari edo afaria

- Nekane Agirre-Zabala (Alegia)



Zaldizurreta, 7, Beasain • 943 089 519

Bi hilabeteko epea saria erabiltzeko. Aurrez deitu.

MIKOTEATROA

Noiz. Bihar, urriak 29, larunbata.

Ordua. 19:00etan.

Non. Atxulondo kultur etxearen eta Plazida Otaño liburutegian.

Sarrera. Doakoa izango da eta amaieran borondatea jasoko dute parte hartzaleek.

hen aldia izango dute Zizurkilen eta beste batzuk, aurrez etorritakoak dira. «Katalanei asko gustatzen zaie Euskal Herriko etortzea», esan du Arrastoak.

Elkarlana ez da horretara mugatu. Biharko antzerki lana iragartzeko kartela Zizurkilgo Maria Altuna Lizarragak egin du. «Laguna dut. Ikuñtza neuzkan bere marrazkiak eta asko gustatzen zait bere estiloa. Ideia bat eman nion eta emaitza zoragarria da. Gauza txiki asko eta kuriosoak ditu kartelak».

Proposamen diferentea

10-15 minutuko saio laburrak izango dira areto bakoitzean eskainiko direnak. «Beraz, norbait antzerki batekin aspertzen bada, badaki, handik gutxi-
ra beste proposamen ezberdin batekin egongo duela topo».

Sarrera doakoa izango da eta amaieran inork borondatea eman nahiko balu, jasoko lukete antzerki ikasleek. «Hala ere, ez dugu asmo horrekin egiten. Ikasten ari garena erakutsi nahi dugu eta jendeari ohikoaz aparteko denbora-pasa bat eskaini nahi diogu. Ikuñtza ere asko ikasi daiteke».

Argazkilaritza helduentzat eta marrazketa haurrentzat

Bi ikastaro antolatu ditu Anoetako Udalak eta azaroaren 4a, hurrengo ostirala da izen emateko azken eguna

Erredakzioa

Helduentzat argazkilaritza ikastaroa egingo dute Anoetan eta argazki kamara motak eta objektiboak ezagutzeaz gainera, argia kontrolatua (fotometroa, obturadorea, sensibilitatea) eta moldatzten ikasiko dute (koleore temperatura, distantzia fokala, konposizioa). Bide batez, formatuak eta postprodukcioa ere aztertuko dituzte. Hiru hileko ikastaroa izango da eta 100 euro inguruko prezioa izango du.

Lehen Hezkuntzako laugarren maiatik gorako haurrentzat berri, marrazketa eta pintura tailerra eskainiko da. Hasieran marrazketa landuko da eta ondoren pintura mota ezberdinak (pastela, akuarela, olioa...) aztertuko dituzte. Ikastaroaren prezioa 40 euroko izango da.

Bi ikastaroetan izena emateko azken eguna azaroaren 4a da, hurrengo ostirala. Horretarako Anoetako udaletxera jo beharko da edo bestela liburutegira. Informazio gehiago eskuratzeko aukera izango da tsoto@anoeta.eus helbidera idatziz gero.

Erlaxazio teknikak erakutsiko dituzte

Mendekotasuna duten pertsonen zaintzan aritzen direnentzako prestatu dute ikastaroa, azaroa eta abenduan

Erredakzioa

Aitzondo Zerbitzuen Mankomunitateak antolatuta, Aduna, Alkiza, Larraul eta Zizurkilgo herriarrek haritu ahal izango dute parte, mendekotasuna duen pertsonaren bat zaintzen ari badira.

Ikastaroa doakoa izango da, eta sei saio izango ditu, azaroaren 15etik abenduaren 27ra bitartean, astearteetan, 16:30etik 18:30ra bitartean.

Zizurkilgo Atxulondo kultur etxearen emango da. Ikastaroaren helburua da zaintzaile jarduera dela-eta sortu ohi den nekea eta gainez egitea askaten ikastea: buru-pentsamendu, emozion-mailan eta gorputz-mailan. Egoeretara egokitutako onartzen ikasteko, eta indarra kentzen digun hori askaten joateko. Beti ere, agertu daitekeen higadura eta gehiegizko nekea saihestea da asmoa. Ariketa praktikoei leku berezia emango zaie.

Ikastaroetan izena eman nahi izanez gero, Aitzondo Zerbitzuen Mankomunitateko telefonora deitu beharko da datozen egunetan, 943 69 39 30 zenbakira.

hilberriak • urteurrenenak • eskertzak

ataria
jarrita
Gipuzkoako
3 Hitzetan DOAN

Eskelak orain merkeago!

TXIKIA (82mm X 63,5mm): 100 € • Harpidedunentzat 50 €

HANDIA (124mm X 63,5mm): 150 € • Harpidedunentzat 75 €

ESKERTZA (38mm X 63,5mm): 50 € • Harpidedunentzat 25 €
bez barne

ESKELAK • ataria@ataria.info • Tel.: 943-65 56 95
Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu
Ostegunetan 16:00ak arte hartzen ditugu

ENEKO ZIGANDA ESKUBALOI JOKALARIA

«ZALETUEN AURREAN LORTU NAHI DUGU LEHEN GARAIPENA»



08

Izena:	Eneko
Abizenak:	Ziganda Castrillo
Adina:	20 urte
Herria:	Irura
Altuera:	1,89 zm
Pisua:	102 kilo
Postua:	Ezker hegalekoa.
Ezaugarrir bat:	Kanpotik jaurtitzeko gaitasuna.
Momentu bat:	Duela bi urte, bigarren taldearekin Euskadiko Txapelketa irabazi genueneko.
Amets bat:	Denak bezala, lehenengo mailara iristea.
Jokalari bat:	Hegaleko askok bezala, Nikola Karabatic.
Talde bat:	Paris Saint-Germain.
Beste zaletasun bat:	Ehiza.

gundora arte, edo gehiago. Pixkanaka ari gara lortzen gero eta denbora gehiago irautea.

Zure taldekide batek esaten zuen, maila honetan 5 minuto despistatzten baldin bazara, partidak alde egiten duela.

Entrenatzaileak ere esaten digu hori gure buruaz beste egitea dela. Aldea ateratzen baldin badizute, oso zaila da buelta ematea. Liga honetan, defentsan, jokalarietan eta batez ere atezainetan, izugarrizko aldea dago. Eta hori ederki nabaritu eta sufritu dugu. Oraingo bi edo hiru goleko errenta lehengo lau edo bostekoa da.

Belaunean min duzu. Iritsiko al zara larubateko partidara?

Tendinitisa daukat, eta fisioterapeuta-rekin egona naiz. Berak ez jokatzea gomendatu dit, baina berriro ere joango naiz, eta ea ostiralean nola nagoen.

Etxean jokatzen duzue. Beste au-kera bat lehen garaipena lortzeko.

Eta gogotsu gaude. Lehen garaipen hori lortu nahi dugu, eta batez ere etxeen. Kanpoan lortuz gero oso ondo, baina etxeen bertako jendearen aurrean bada, hobe. Ez dugu oraindik lortu, eta gogoarekin gaude. Aukako taldeak badakigu nola jokatzen duen, zein jokalari dituen, eta indartsu atera beharko garela. Ea zer gertatzen den.

Non egongo da gakoa Torrelavega-ren aurkako partidan?

60 minutuak irautean eta beste taldeko jokalari onena geratzen asmatzean.

Tolosa Eskubaloia etxean jokatuko du larunbatean, 18:45ean, Torrelavega taldearen aurka.

Asier Imaz

Zilarreko mailan zazpigarren denboraldia jokatuko da asteburu honetan. Talde tolosarra azken postuan dago, puntu bakarrarekin. Larunbatean lehen garaipenaren bila irtengo dira.

Denboraldi hasiera honetan pixka bat kostatzen ari zaizue mailara egokitzea?

Kostatzen ari zaigu egokitzea. Jende berria etorri da, eta duela bi urte ere gauza bera gertatu zitzagun. Taldea egonkortu egin behar da. Bestalde, maila aldaketa ere handia izan da. Aurreko urteetan inguruko taldeen aurka jokatzen genuen, baina orain Spainia mailako aurkariak ditugu: atzerriko jo-

kalariak, hortik bizi den jendea, joko oso ondo ezagutzen duten jokalariak.... Guretzat hau afizio bat da, eta gustura gaudelako jokatzen dugu. Baina pixkanaka egokitzen joango gara. Etxean talde gogorra gara. Kanpoan, agian, ez gara hain sendo ibiltzen, baina hori da dagoena.

Zer nolako joko egiten saiatzen zarete?

Joko azkarra gustatzen zaigu, balioa azkar mugitzea. Irtenbiderik ez baldin badugu aurkitzen, gurutzaketak, kanpotik jaurtitzea... Irtenbidea azkar bilatzen saiatzen gara, landutako jokaldiak ondo bukatuz.

Agian maila honetan gehiago nabaritzen zaizue azken minutueta-ko neke hori.

Aurreko denboraldian 40. minuturako partida erabakirik egoten zen gehienetan. Orain, 60 minutuak tope-ra jokatu behar izaten dira, azken se-

Kiro Agenda

@Tolosaldeakiroi 

OSTIRALA URRIAK 28

ADUNA

19:00. Esku pilota. Txulobiko infantilen bi partida. Lehena, Oiarperen aurkakoa, eta bigarrena, Behar Zanako pilotariaren aurka. Gipuzkoako Txapelketaren barruan.

ALEGIA

ELORRI FRONTOIA

19:00. Pilota. Gomazko paletako eta esku pilotako Intxurrekoen bost partida. Gipuzkoako Txapelketaren barruan, jubenilak eta alebinak.

AMASA-VILLABONA

BEARZANA FRONTOIA

19:00. Esku pilota. Behar Zanako infantil eta nagusien partidak. Hiru. Gipuzkoako Txapelketaren barruan.

LIZARTZA

19:30. Esku pilota. Banaka, Gipuzkoako Txapelketaren barruan, Tolosako pilotarien partidak, infantil mailakoak.

TOLOSA

BEOTIBAR FRONTOIA

19:30. Esku pilota. Tolosako pilotarien bost partida, buruzburu, Gipuzkoako Txapelketaren barruan. Infantil mailako lehiak izango dira guztiak.

USABAL KIROLDEGIA

21:00. Areto futbola. Laskorain vs. Anoeta. Gipuzkoako Liga, bigarren maila.

UZTURRE KIROLDEGIA

21:30. Areto futbola. Iurre Taberna vs. Lasarte. Gipuzkoako Liga, hirugarren maila.

LARUNBATA URRIAK 29

ALEGIA

ELORRI FUTBOL ZELAIA

11:00. Futbola. Intxurre vs. Beasain. Lehen mailako kadeteen partida.

16:00. Futbola. Intxurre vs. Zumaiako. Erregional preferente mailako partida.

AMASA-VILLABONA

ARRATZAIN FUTBOL ZELAIA

11:00. Futbola. Billabona vs. Usurbil. Lehen mailako infantilen partida.

16:00. Futbola. Billabona vs. Ordizia. Jubenilen ohorezko mailako partida.

18:15. Futbola. Billabona vs. Ostadar. Kadeteen lehen mailako partida.

AMEZKETA

LARRUNARRIFRONTOIA

16:00. Esku pilota. Zazpi Iturriko alebinen eta nagusien lau partida. Gipuzkoako Txapelketaren barruan, banaka. Bigarren eta hirugarren lehiak, Intxurreko pilotarien aurkakoaak.

IBARRA

BELABIETA FRONTOIA

16:00. Pilota. Sendi Ekintzako alebinen mailako partida, Goierriren aurka. Buruz buru, Gipuzkoako Txapelketaren barruan.

TOLOSA

BEOTIBAR PILOTALEKUA

11:30. Zesta punta. Beotibarko nagusien partida, BAC-en aurka. Gipuzkoako Txapelketaren barruan.

16:00. Esku pilota. Tolosa eta Aurrera Tolosako pilotarien partidak. Guztira, hiru, infantil eta nagusien mailakoak. Gipuzkoako Txapelketaren barruan.

BERAZUBI FUTBOL ZELAIA

16:30. Futbola. Tolosa CF vs Alaves. Jubenilen Euskal Ligako partida.

USABAL KIROLDEGIA

09:00. Saskibaloia. Take vs. Easo eta Take vs. Hernani, infantiletan.

09:30. Futbola. Tolosa CF-eko harrobiko taldean sei partida. Azkena, 17:30ean.

10:00. Eskubaloia. Tolosa vs. Bidasoa. Infantilak.

12:00/16:30. Areto futbola. Laskoraingo jubenilak Aldapeta eta Marrock-en aurka.

ZIZURKIL

INTXAUR FRONTOIA

15:00. Gomazko paleta. Emakumea pilotarien barruan, zazpi partida, nagusien mailakoak.

IGANDEA URRIAK 30

AMASA-VILLABONA

ARRATZAIN FUTBOL ZELAIA

10:00. Futbola. Billabona, Tolosa CF, Euskalduna, Texas Lasartearra. Lehenengo urteko alebinen mailako partidak.

TALDE NAGUSIAK

LAUBURUIBARRA

Sala Quinto

Areto futbola. Urriak 29, larunbata, 16:30ean. Bigarren B Mailako partida. Ibarra Belabietako kirodegian.

Portugalete

TOLOSA CF

Futbola. Urriak 30, igandea, 11:30ean, Portugaleteko La Florida futbol zelaian, Hirugarren Mailako partida.

Oiartzun

TOLOSA CF

Futbola. Urriak 30, igandea, 16:30ean Oiartzungo Karla Lekuona futbol zelaian. Euskal Ligako partida.

TOLOSA CF ESKUBALOIA

Torreлавega

Eskubaloia. Urriak 29, larunbata, 18:45ean Usabal kirodegian. Ohorezko Zilarreko Mailako partida.

Grupo de Santiago

TAKE SASKIBALOIA

Saskibaloia. Urriak 29, larunbata, 19:30ean, Eba ligako partida Burgosen.

TOLOSA

USABAL FUTBOL ZELAIA

09:45. Futbola. Tolosa CF-eko alebinen lau partida. Azkena 12:45ean hasiko da.

UZTURPE KIROLDEGIA

17:00. Areto futbola. Gudari vs. Intza Berri. Gipuzkoako Liga, hirugarren mailako partida.

BILLABONA FUTBOL KIROL ELKARTEA

ARRATZAIN FUTBOL ZELAIA

Larunbata 29 • 11:00
Infantil 1. maila
BILLABONA FKE - USURBIL FT
Larunbata 29 • 16:00
Jubenilen Ohorezko maila
BILLABONA FKE - ORDIZIA KE
Larunbata 29 • 18:15
Kadeteen 1. maila
BILLABONA FKE - OSTADAR SKT'B'
Igandea 30 • 10:00etatik aurrera
1. urteko alebinak
BILLABONA FKE - TOLOSA CF - EUSKALDUNA SD - TEXAS LASARTEARRA



Gozogile guztiak parte hartuko dute Pitxi-pitxi gozoak egiten; 12:30ean banatuko dituzte. I. URKIZU

Pitxi-pitxi polit bat.. edo 4.000

10

XXIII. Tolosa Goxua azoka berezia hartuko du larunbatak, eta kokozko pasteltxoak izango dira aurtengo protagonista

Itzea Urkizu Arsuaga

Komedianteen polka baino ezagu nagoa zaie tolosarrei, doinu berari *Pitxi-pitxi* deitza; inauterizaleek ume-umetatik ikasten duten hori. Festarako kantuaz harago, ordea, gozo edo pasteltxo bat ere bada *Pitxi-pitxi*, eta Tolosako protagonista nagusia izango da, gainera, aurtengo Tolosa Goxuan.

XXIII. Goxua izango da larunbatekoa eta, beste zenbait urtetan bezala, bat egingo du Abesbatza Lehiaketarekin. Eta, egiaski, ez zen asteburu hoberririk *Pitxi-pitxi* kantuak eta gozoak bat egiteko.

Goizeko bederatzietan hasita, arratsaldera bitarte gozoak izango dira Trianguloa plazako errege-erreginak, bihar. Saizar gozodendako lantegian aurkeztu zuten egitaraua, eta bertan izan ziren, Olatz Peon alkatearekin eta Nerea Letamendia azoka zinegotzia-rekin batera, Saizar Gozategiko Nieves Soroa, Ibañez-Gozonako Ansel Iba-

ñez, Gorrotxategiko Iñaki Gorrotxategi, Gorostiko Jon Sorarrain eta Eceizako Moira Eceiza. Azoka «hilabeteetako lanaren emaitza» izango dela azpimarratu zuten guztiak, eta Tolosan gozo-gileek duten garrantzia ere hizpide izan zuen alkateak: «Esperientzien herria da Tolosa, eta halako egitasmoek garapen ekonomikoan eragin nabaria dute».

Kondaira bat, Filipinetatik

Abesbatza Lehiaketan parte hartzekoazken Filipinetako Los cantantes de Manila abesbatza. Dokumentazioarekin erlazionatutako arazoak medio, ordea, taldeak ezin izango du Tolosako lehiaketan parte hartu.

Bada, Goxua azokako antolakuntzak historia bitxi batekin lotura polita

TOLOSA GOXUA 2016

URRIAREN 29A, LARUNBATA

09:00-14:00. Azoka berezia

Trianguloan. **09:00-10:00.** Sagar tartak lehiaketara aurkezteko epea.

10:00-11:00. Epaimahaiak tartak dastatzeko denbora. **11:30.** Sari banaketa. **12:00.** Abesbatza kubatarra.

12:15. Tolosa Kantari. **12:30.** Pitxi-pitxi gozoen banaketa hasiko da.

egina zuen jada, Manilako ahotsak Tolosan izango zirela baliatuz. Izen ere, gazte filipinar bat Tolosan bizitzenten egon omen zen duela hainbat urte, eta gozotegi bateko lantegian aritzen omen zen egunero. Horrela, gizona Filipinetara itzuli zenean, Tolosan ikasitako kokozko pasteltxoaren errezeta Filipinetako errezeta batekin uztartu omen zuen, gozo hari *Pitxi-pitxi* izena jarriaz.

Abesbatza filipinarrik gabe bada ere, *Pitxi-pitxi* nagusi izango da bihar, Tolosa Goxuan. Nagusi izango da gozoen artean, 4.000 *Pitxi-pitxi* banatuko baitituzte gozogile tolosarrek, herritarren artean. Eta nagusi izango da, halaber, musikari dagokionez, 12:00etatik aurrera, kantu bertaratuko baita azokara: Filipinarren ordez, Ensemble Vocal Ámbar ahots talde kubatarra ariko da Trianguloan, eta haien ondoren Tolosa Kantariko kideek girotuko dute litxarrerien plaza.

Urteroko moduan, tarta lehiaketak ere tarte zabala izango du azokan, eta aurren sagar tartarik onena epaitu beharko dut adituek. Izen-estatea gaur itxiko dute, 14:00etan, feriak@tolosa.eus helbidean edo 943 69 75 21 telefonoan.

Egin zaitez atarikide

abenduaren 16a baino lehen,
eta jaso Marques de Bergara (urteko ardoa) kaxa bat



Polig., 2011- Harizti13
20212 OLABERRIA
Tel.: 943 88 09 79



www.bodegaselosegi.com
bodegaselosegi@bodegaselosegi.com

- Zure herriko eta eskualdeko informazioa jasoko duzu asteartetik ostiralera, euskaraz.
- Gipuzkoako Hitza ostiralero.
- Atarikide izatearen onurez gozatzeko aukera izango duzu:
 - Deskontuak: %50 eskeletan eta %25 iragarki labur eta zorion agurretan.
 - Publizitate eskaintza bereziak eta zozketetan parte hartzea aukera.

Eta **ataria irratia** (107.6 fm) eta
www.ataria.eus edukiz betetzen eta indartzen lagunduko diguzu.

Eta gainera...
harpidedun guztien artean
Oiartzungo
eremu termoludikorako
2 sarrera
ZOZKATUKO DITUGU



www.elorsoro.com





**tolosaldeko
ataria**




70€
(bez barne)

egin atariKide!

OSTATU eta ITXARONGELA duten negozioei ESKAINTZA

Eman ikusgarritasuna euskarari eta
jarri eskualdeko informazioa
bezeroen eskura



 **tolosaldeko
ataria** Zerbitzu gida

Iragarri zure negozioa
ataria.eus webguneko
zerbitzu gidan



ataria.eus/zerbitzu-gida

ataria
www.ataria.eus • 107.6 fm

HARREMANETARAKO:

661 67 88 18 / 943 65 56 95

zerbitzugida@ataria.eus / publi@ataria.eus

Enpresa saila



13

Kudeaketa eskola martxan Lehiberri zentroan

Formakuntza da Tolosaldea Garatzeneko enpresa sailaren ardatz estrategikoetako bat. Hori dela eta, urtean zehar, Tolosaldeko herritarrek arlo ezberdinetan formatzeko helburuarekin ikastaro eta ziklo desberdinak antolatzeko dira. Oraingo honetan, Tolosaldeko enpresentzako Kudeaketa Eskola bat sortu da. Honen helburua zonaldeko industria sareko lehiakortasun hobetzea izango delarik.

Izan ere, industria sareko lan egiteko modu ezberdinak aztertu ondoren, eta bertan aurkitu diren beharrak ase asmoz, Formakuntza Plan bat definitu da. Hala, programa honetako parte izango da Kudeaketa Eskola.

Eskola 2017ko ekainera arte luzatuko da eta enpresa bateko arlo guztiak jorratuko dituzten atal ezberdinez osatua egongo da.

Hemen, hilabete honetan hasi eta urte amaierara arte eskainiko den formakuntzaren inguruko informazioa:

ORDUTEGIA:

09:30etik 13:30era.

AZAROA 24, OSTEKINA

Pertsona toxikoekin lan egiteko estrategiak

Hizlaria: Janire Jaurrieta (Impulsa)

ABENDUA 15, OSTEKINA

Absentismoa jaisteko konpromisoa eta konfiantzazko giroa

Hizlaria: Janire Jaurrieta (Impulsa)

LEHIBERRI ZENTROra atxikituta dauden enpresek lehentasuna izango dute izena ematerakoan. Hori dela eta, honakoa aukera paragabea da Lehiberrira atxikitzea. Izen emateak sarrerra-hurrenkeraren arabera hartuko dira kontuan, eta printzipioz enpresa bakoitzeko parte-hartzaile bakarra egon daiteke. Partaide kopurua mugatua izango baita.

Izen ematea:

943654501 telefono zenbakira
deituta edota
lehiberri@lehiberri.com
helbidera mezu bat bidalita
egin daiteke.



14

Opor egunen zerrendan

Bizi-estiloak ugaldu diren heinean, oporraldia txoko ezezagunetan pasatzeko moduak ere gero eta anitzagoak dira; zaharkituak geratu dira, jada, udako aukera bakarra hondartzela dioten afixak. Turista berrieik lurraldeen bihotzera iritsi nahi dute, eta Tolosaldea taupada indartsuz ari da.

Itzea Urkizu Arsuaga

Uurteko egun desiratuenak dira. Egutegia kolore ederrenekin margotzen dutenak. Arropa kutuna aukeratu, maletan sartu eta kilometroak egitekoak. Oroitzapenak memorian pilatzekoak. Eta, antzina postaletan bidal-

tzen zena, gaur egun sare sozialen biltarantz zabaltzekoak.

Oporrak hori guztia eta gehiago dira, bai. Eta, tartean, badira ekonomiaren motorretako bat ere, turismoaren bitarbez. Lurralde jakin baten aberastasun iturri; etengabe hobetzen siasatzeko akuilu.

Bada, antza denez, bainujantzia eta hamaka ezinbestean erabili beharreko

oporraldiak aspaldi hasiak dira diber- tsifikatzen eta, zenbait etxetara, Tolosaldeko iristen dira postalak.

Eskualdeko garapen agentziaren lanari nahiz Gipuzkoako Foru Aldundiaren turismo bulego berriari esker, eskualdeko leihoko sekula baino irekiago daude mundura eta, paisaiak, gastronomiak edo lasaitasunak erakarrita, azken urteotako gorakada berre-



tsi dute joan den udako datuek: Tolosaldean %18 hazi da bisitari atzerritarren kopurua.

Hainbat termometro baliatu daitezke gorakada hori neurtzeko, eta turismo bulegoena izan liteke zuzenenetako bat. Guztira, 16.771 bisitari jaso dituzte Tolosako eta Larraitzeko informazio bulegoek eta, 2015eko udarekin alderatuta, %5eko igoera dakar horrek.

Informazio eske bulegoetara jo dutenen zenbaikiak ikusita, ez da harritzakoa abuztuko okupazioaren batez bestekoia %88 izatea. Tolosaldea Garatzeko aditurek ikusi dutenez, «bisitariak, oro har, lau egun inguruko egoaldiak egiten dituzte».

Kalitatea, hori da egonaldien gakoa. Hala diote, behintzat, turisten inkesta erantzunek. «Bisitarien %100ak go-mendatzen du Tolosaldea helburu turistiko moduan, eta jasotako tratua, ostattua eta helmuga turistikoaren kalitatea azpimarratzen dituzte gehienek», dio Tolosaldea Garatzeneak.

Maletak, bizipenez beteta

Kostaldetik 20 minutura eta mendien magalean, Tolosaldea oasi txiki bat izan daiteke hiri handikien estresetik

ihesi doanarentzat. Donostiarena itzal luzea da, ordea, eta, duela zenbait hamarkada, ia pentsaezina zen Tolosako Nafarroako Zubian bi kanpotar ikus-tea, argazkirako posea prestatzen, Zerkausia lilituraturik.

Cristina Iturriagagoitiak argi dauka, azken 10-15 urteotan egindako lana-ren fruituak jasotzen ari dela, orain, turismoa: «Izugarria da Gipuzkoako helmuga turistiko moduan egin duen bilakaera».

Urteak daramatza sektore horretan, eta, berriki, *Explore San Sebastian Region* turismo bulegoko zuzendaritzar hartu du, Donostiako Boulevarden. Udar eta itsasoak duten lotura estua ukatu ez duen arren, harrituta dago barrualdeko turismoak udan eman dituen datuekin: «%33ak barrualdeko informazioa eskatu dute, eta informazio hori nahi izaten dutenek jatorriekin, sustraietako, naturarekin eta tokian tokiko berezitasunekin gozatu nahi izaten dute oporretan. Uda izateko, niri portzentaje altua iruditzen zait, izan ere, oso kontuan izan behar da, pertsona horiek hona etortzerako erabakia zutela barrualdea ezagu-tzea».

Egiazki, Tolosaldeko 28 herriei ez

zaie ez naturarik ez tokian tokiko ezaugarririk falta, eta bereizgarri horien gainean eskaintza zabala marraztu dute profesionalek, turisten male-tak bizipenez lepo bueltatu daitezen. Txindokiko Itzala abentura parkeak familien gozamena dakin bidetik, Santa Maria elizako bisita gidatuek historiak piztutako jakin-mina ase die, aurten, 1.000 turistari baino gehiago-ri. Topic zentroan %20 hazi da bisitari kopurua, txotxongiloen mundu magikoak erakarrita, eta Zerkausiko ekoizleek ere nabaritu dute kanpotarren presentzia.

417 ohe, eskualdearekin eskualdean amesteko

Udako datuak dira horiek guztiak, baina, eguzki-orduak gutxitu eta eguraldia dirdira galtzen hasten denean, orduantxe azaleratzen dira Tolosaldeko harribitxi preziatueneak.

Egonaldi laburrak eta sustriaietara lotuak eskatzen dituzte bisitariek eta, zalantzak ez da, asteburu honetan Tolosa Goxuak irekitako bidetik, hainbat eta hainbat izango direla neguko zubi eta jai-egunak eskualdera begira antolatuko dituzten turistak.

Egun-pasa perfektua osatzeko as-



16

moz bertaratuiko dira asko, ziur, atzerritarren bisitak hazi diren bezala hazi baita, Euskal Autonomia Erkidegoko herritarren bisita kopurua: iaz baino 2.000 gehiago izan dira udan.

Baina, zenbaterainokoa da eskualdeak bisitariei ostitu emateko duen aukera? Lau azpiegitura mota bereizten ditu Tolosaldea Garatzenek eta, hotel, pentsio, nekazalturismo eta landetxe, nahiz turismo aterpetxeen artean, 22 establezimendu daude 28 herrietan.

16.771

TURISMO BULEGOETAKO BISITAK

Iazko udan baino bisitari gehiago jaso ditu, aurten, Tolosaldeak, eta turismo bulegoetako –Tolosako eta Larraitzeko–zenbakiek dira horren erakusle. EAEko bisitak %28 igo dira, eta atzerritarrenak, berriz, %18. Tolosari erreparatuta, EAEko bisitak %39 igo dira, eta turista atzerritarrenak, berriz, %21 hazi dira.

Landetxeek plaza kopuru handiena dute, 141 oherek, eta gertu dituzte hotelak ere; 128 pertsonari ostitu emateko lekuak eskaintzen dute. Pentsioek eta turismo aterpetxeek, berriz, 78 eta 70 turistarentzako lekuak dute, hurrenez hurren. Guztira, Tolosaldeak 417 ohoko ostitu eskaintza du, eskualdearekin eskualdean amestu ahal izateko.

Araututako establezimenduetatik kanpo, ez da lan erraza turismo apartamentuen zerrenda osatzea. Pasa den uztailaren 28an, ordea, Turismo Lege zaharrak izan zitzakeen zirrikitu guztia itxi zituen Eusko Legebiltzarra, eta arautu gabeko etxebizitza turistikoek beren egoera erregulatzeko lege berria onartu zuten. Datuen arabera, Gipuzkoan 502 dira legez kanpo jarduera turistikoaren aterpe izan diren etxebizitzak, eta erregistroan izenik eman ezean, isuna 600.000 eurorakokoa izan liteke jabeentzat.

Momentuz, ez dirudi Tolosaldean legez kanpoko etxebizitza turistikoen uholdea handiegia izango denik, turismo eredu tipikoenetik urrun baita bailara.

Gutizia eta parajeen eskualdeak, ordea, betiko nortasunetik bezainbeste du garai berriatik, eta asko dira etxeak

etxearekin trukatu eta bazter berriak ezagutzeko aukera galtzen ez dute-nak.

Maider Aizpuruak zazpi urte dramatza *Home for Home* plataforman eta, hasierako ustean aurka, denborak irakatsi dio Tolosaldea opor lasaien se-haska dela bisitari askorentzat: «Gaur egun gauza gutxi egin daitezke dirurik gabe, eta hau da horietako bat; norberak duenarekin egiten du, suertatzen denaren arabera, eta Tolosaldea era-kargarria da turista askorentzat.

417

OHE ESKUALDEAN

Hotelek, landetxeek, pentsioek eta turismo aterpetxeek osatzen dute Tolosaldeko ostitu-eskaintza eta, guztira, 22 establezimendutan, 417 pertsonarentzat dute lekuak. Nekazalturismoak eta hotelak dira gehienak, eta Tolosa da ohe gehien dituen herria. Aurtengo abuztuan, okupazioak %88ko langa gainditu du eskualdean.



LURKIZU

«ARGI DAGO PLAN LASAI BAT NAHI DUTEN BIDAIARIAK ETORTZEN DIRELA HONA»

MAIDER AIZPURUA

'HOME FOR HOME'-EKO ERABILTZAILEA

Imajinatuko ez zuketen lekuetara bidaiatzeko txartela eskuratu dute azken urteotan, beste hainbat familiarekin etxea trukatuz; «esperientzia bikaina» dela dio.

Bidaiatzeko filosofiatzat du etxea etxarekin trukatzearena, aurreztek bidea baino. Duela zazpi urte ekin zioten abenturari, eta Tolosaldea uste baino jende gehiagoren oporleku dela ikusi dute.

Nolatan hasi zineten oporretarako etxea trukatzetan?

Kuadrilako lagun batek kontatu zidan etxe truke bat egin zutela oporretara joateko. Segituan pentsatu nuen nik ere gauza bera egin nezakeela, eta galdera pilo bat egin nizkion. Bikotearekin hitz egin eta, ideia bikaina iruditu zitzainez, webgunean sartu eta lehen pausoari ekin genion: erregistratu, eta ea zer gertatzen den.

Eta?

Lehenengo mezua iritsi zitzagunean harrituta geratu ginien, oso denbora gutxian iritsi baitzen. Edozein opor lekatura joateko prest dagoenak erraztasun handiagoak ditu, eta horixe zen gure kausa. Horrela, gure lehen aldian Sitges-en (Herrialde Katalanak) izan ginien. Hasieran oso urduri geunden, baina behin hara iritsita, oso ondo joan zen guztia. Emakume batek eta haren amak egin ziguten harrera, eta sekulakoa izan zen: bi pastel prestatu zizkigutenean, xanpain botila bat ere jarri zuten mahaian eta izozkailuan txuletagat utzi zituzten guretzat [barreak]. Bi etxe zituzten, eta bigarrena prestatuta zeukan trukera-

ko. Jende askok egiten du hori, eta badu alde on bat: trukea errazagoa da, bi familia-unitateen oporrekin ez dutelako, ezinbestean, bat etorri behar.

Geroztik, truke asko egin al dituzue?

Bai, zazpi bat egin ditugu. Sitges-ekoia lehena izan zen eta, gero, Sardiniera (Italia) joan ginien. Etxe hura sekulakoa zen, eta jabea aireporturaino joan zen gure gila; oso atsegina zen. Azkena due-la zenbait aste egin dugu, eta Calpen (Valentzia, Herrialde Katalanak) izan gara.

Eta, zenbat aldiz etorri dira zuen etxera, Tolosara?

Gasteizko batzuk izan ziren, eta galiziarrekere bai. Bartzelonako familia bat ere etorri zen Eguberrieta, eta oso-oso gustura itzuli ziren: giroa, jendea,... Zoratzen ibili ziren. Deniako (Alacant, Herrialde Katalanak) batzuk ere izan dira, eta Calpeko familia Aste Santuan etorriko da, ziurrenik.

Zure ustez, zeren bila bertaratzen dira Tolosalderak?

Denagatik. Nik, hasieran, nire artean pentsatzen nuen: «Zein etorriko da Tolosara, Donostia hor egonda?». Baina jendea Tolosara etortzen da, eta hemen-dik mugitzen da eguneroko planak egiteko. Donostiara joaten dira, bai, baina baita mendira ere. Gastronomiak erakarrira etortzen dira asko, edo freskuragatik. Bakoitza gauza desberdinak bilatzen ditu, baina argi dago plan lasai bat nahi duten bidaiaiak etortzen direla hona.

Zein da oporretarako etxea truktazearen alderik onena?

Bidaiatzea jende askoren zaletasuna da eta, horrelako egitasmoi esker, ez da urtebetetako edo bi urte lehenago hasi behar oporretarako dirua aurrezten. Daukazunarekin egiten duzu, suertatzen denaren araberak.

Gomendatuko zenuke?

Noski baietz. Jende askok beldurra izaten du bere etxearen jende ezezaguna sartzeko, baina, oporretara joaten garenean, leku ezagutzera joaten gara, eta os-tatua oinarrizko beharretarako izanden da: janaria prestatzeko, dutxatzeko eta lo egiteko. Inor ez da, besteen etxearen, armairuak eta kajoiaiak zabaltzen hasten, beraz, nik ez dut horren beldurrik.

«TOLOSALDEA OSO ONDO KOKATUTAKO ESKUALDEA DA, ETA HORI OSO GARRANTZITSUA DA»

CRISTINA ITURRIAGAGOITIA

'EXPLORE SAN SEBASTIAN REGION' TURISMO BULEGOKO ZUZENDARIA

Turismo eredu tipikoenetatik aldentzen bada ere, Gipuzkoak sektore horretan «gorakada izugarria» izan duela dio, eta aukera horri heldu egin behar zaiola.

18

Juan den uztailaren lean zabaldu zuten, Donostian, *Explore San Sebastian Region* turismo bulego berria. Bisitarien begietan, Gi-puzkoako eskualdeen erakusleihoi bilakatu da, eta Lankor enpresako Cristina Iturriagagoitia da zuzendaria.

Zein da proiektuaren iturburua?

Foru aldundiko turismo sailak buruan zeukan, herrialde osoko turismoa indartzeko estrategia berri bat abian jartea. Lehenengo pausoak marka sortzea izan zen: *Explore San Sebastian Region*. Alde batetik, Donostiatik duen indar eta erakargarritasuna baliatu nahi izan zuten, esateko, Donostiaz harago ere asko dagoela ezagutzeko. Atzerritarrek oso ondo ulertzten dute *region* [eskualde] kontzeptuak lurralde zabal bat adierazi nahi duela eta, *explore* horrekin, berriz, bisitariak Gipuzkoako txokoak deskubritzera deitu nahi izan dituzte. Estrategia horren barruan, oso proiektu indartsua izan da turismo bulegoa irekitzea.

Zein berezitasun du bulegoak?

Gipuzkoa lurralde txikia da eta gauza txikiak ditu, baina asko, eta sarri, Donostia bisitatzena etortzen direnei ez zaie hain erraza suertatzen txoko eta esperientzia berezi horiek ezagutzea. Horregatik, bulego hau horretan espe-

zializatzea nahi genuen, sartzen direnei Gipuzkoa ezagutzeko gogoa piztuz eta informazio zehatza eskainiz.

Nola lortzen da hori?

Baliabideak erakutsi, errekurto ba-koitza ezagutzeako ordutegiak eskaini, esku-orriak banatu, bisita gidatuak eskaini, autoz joateko jarraibideak eman, garraio publikoa hartzeko kon-tsultak egin eta, finean, bidaia antolatu. Gure lana ez da mugatzen informazioa ematera, bidaiaaren beraren plangintza txiki bat ere egiten diegu bisitariei.

«Gozamena da Gipuzkoa gomendatzea, afizio eta gustu guztien neurrira egindako txokoak baitaude»

Turisten harrera nolakoa izan da?

Harrera oso ona izan dela uste dut. Egia da, bertaratzten diren erdiak-edo Donostia turismo bulegora sartzen ari direlakoan hurbiltzen direla, alda-menean baitaude biak. Eskaera horien aurrean, guk beti esaten diegu hemen lurralte osoari begira lan egiten dugula eta, oro har, hurrengo baterako go-goan hartuko dutela esaten dute. Beste erdiak, ordea, jakitun dira sartzen

ari diren lekuaz. Normalean hiruzpalaun egun pasatzera bertaratu diren pertsonak izaten dira, eta Gipuzkoan ezagutzeko informazioa eskatzen dute. Batzuk aurrez pentsatuta izaten dute leku edo inguru bat bisitatzea eta, beste askok, aldiz, guztia azaltzea nahi izaten dute.

Tolosaldean nabarmen igo da, aur-tengo udan, bisitari kopurua: %18 inguru. Bulego berriak eraginik izan duela uste duzu?

Bai, hori nahi dugu behintzat. Hemen-dik, gutxi gorabehera, 35.000 pertsona pasatu baldin badira, eta gehienekin aurrez aurre egon baldin bagara, pentsatzen dut nabarituko zela. Gure informatzaileek ikusi dute bisitari askori Tolosaren izena ezaguna egiten zaiela. Gainera, Tolosaldea oso ondo kokatutako eskualdea da, eta hori oso garrantzitsua da: bertaratzeko erraztasunak daude, bai garraio publikoan, bai autoz. Gomendatzeko oso erraza da eta, era berean, turismo gastronomikoa sustatzeko oso ondo antolaturiko eskaintza du Tolosaldeak. Horrela, Tolosa bereziki gastronomiaren bila dabilzanei iradokitzten diegu, larunbateroko azoka oso aukera ona baita profil horretako turistentzat. Azokako bisita gidatua eta pintxoak jateko ta-



I.URKIZU

bernak gomendatuz hasten gara. Arratsaldean, berriz, Topic museoa bisitatzea iradokitzent diegu.

Gastronomiarekin batera, jendeak zer bilatzen du Tolosaldean?

Paisaia eta jarduerak, nagusiki. Txindokiko Itzala proiektuaren bitartez, familia batibaino gehiagorri gomendatu diogu plana; 12-14 urte bitarteko seme-alabak dituztenentzat bisita bikaina da, eta arrakasta izan du.

Zein eredutako turistak dira bulego honetatik pasatzen direnak?

Familiak, bikoteak eta talde txikiak dira gehienak, baina hilabetearen arabera asko aldatzen da opor ereduera. Abuztuan, adibidez, eguraldi onak asko markatzent diru oporrak, eta kostaldeak nahiz Donostiarra jardurek –Aste Nagusia, Jazzaldia,...– harrapatu egiten dituzte turistak. Hala ere, gozamena da Gipuzkoa gomendatzea, afizio eta gustu guztien neurriera egindako txokoak baitaude, egia esan.

Horrek bisitariak harritzen ditu?

Bai, noski, askotan esaten digute: «Zer egingo dugu? Egun eta erdi bakarrik

daukagu!». Horrelakoetan beren baldintzak galdetzen hasten gara, bisita zertxobait bideratzeko: autoa duten ala ez, haurrek dituzten ala ez,...

Turismoaren esparruan lanean hasi zinenetik hona, nola aldatu da sektorea?

Gorantz joan da, eta zenbakiei begiratu besterik ez da egin behar: urtero errekorra puskatu egiten dira. Bide

«Eustateko datuak ikusita, udaz kanpoko hilabeteetan ere badago goranzko joera; hori da gure helburuetako bat»

beretik, ostatuen okupazioa ere oso erakusle ona da turismoaren erritmoa neurtzeko, eta aurtengo uda oso-oso ona izan da. Eta, Eustateko datuak ikusita, udaz kanpoko hilabeteetan ere badago goranzko joera bat. Hori da gure helburuetako bat: udaz kanpo ere, jendea hona erakartza.

Zerk eragin du gorakada hori?

Ni Deabarrenan hasi nintzen, duela

20 urte inguru, eta Gipuzkoak helmu ga turistiko moduan egin duen bilakaera izugarria da. Ez bakarrik zenbaki eta emaitzetan, baita baliabideen aldetik ere. Gipuzkoan 60 turismo bulego daude, eta paper oso garantzitsua dute, lurraldearen ondarea ezagutaraziz. Gainera, hemendik kanpo ere promozionatzen dute lurraldea. Urteotan guztiotan lan handia egin dela uste dut. Goierriren eta Tolosaldearen artean sortutako marka, edo Tolosari egokitutako eskaintza, adibidez, azken hamarkadan garatutako kontuak dira. Epealdi horretan eskaintzak egin duen gorakada sekulakoa da.

Ekonomia aldatu egin da?

Bai, eta kontuan izan behar da gure herriak ez duela beste herri batzuek duten tipología turistiko nabarmen hori. Beste ekonomia-lerro batzuk indartsuagoak izan dira, baina, azken urteotan, dibertsifikazioaren aldeko apustua ikusi dut. Sektore moduan aukera izanez gero, baliatu egin behar da, nire ustez.



Guere euskarra garelako

‘Tolosaldeko Ataria’ .eus da gaurtik aurrera. Domeinu bat baino gehiago da .eus, euskararen normalizazioan eta hizkuntzaren zabalkundean ezinbesteko erreminta da eta ‘Ataria’-k ere bat egiten du egitasmoarekin. Euskara beste hizkuntzen mailan jartzen duen tresna da hain justu, domeinua.

Rebeka Calvo

X XI. mendean Interneten zaude edo ez zara». Amadeu Abrilen hitzak dira, .cat domeinuko sustatzaile nagusia. .eus euskararen normaliziorako baliliagarria dela eta euskaldunen nort-

suna indartzen duela esan zuen Argia aldizkariak eginkiko elkarritzeta batean eta hain justu, hori da PuntuEus Fundazioaren helburua.

.eus Interneten nabigatzeko marka bat da, baina hori baino gehiago ere bada. Komunitate bat badagoela eta zer eskainia baduela adierazten duen marka da, eta ATARIA ere komunitate horretako parte da. ATARIA-k euskara-

ren normalizazioan, euskal komunitatearen garapenean eta euskal kultura-ren zabalkundean eragin nahi du eta hori dela eta .eus izango da aurrerantzean. Gaurtik aurrera, hortaz, *ataria.info* baztertu, eta ATARIA .eus da.

2014an hasi zen .eus domeinuaren ibilbidea eta urte hauetan 6.000 webgune baino gehiagok erabaki dute do-



Gaurtik aurrera 'Ataria'-ko webguneak eta emailak .eus luzapena dute; azken albisteak 'www.ataria.eus'-en izango dituzu irakurle. A. IMAZ

meinu hau erabiltzea. Horretarako PuntuEUS Fundazioarekin jarri dira harremanetan.

Fundazioan ez dute salmenta zuzena egiten, salerosketan kudeaketa lanaz arduratzenten dira. «Guk ez dugu salmenta zuzena egiten, Interneteko domeniu salmentan ibiltzen diren erregistratzaileak dira saltzen dute-nak. Guk horiek salerosketa prozesu guztia kudeatzen dugu. Euskal Herrian .eus ezagutzera ematea da gure lana, azken finean, erregistratzaile horiek ez daude Euskal Herrian, eta beraz, gure lana da horren berri ematea, zabalkunde lana egitea... Gure lanaren

zati oso handia horretan joaten da. Horrekin batera guretzat garrantzi-tsuak diren sektore, erakunde eta entitateekin hitz egiten dugu. Badira Euskal Herrian giltzarri diren hainbat ele-

**.eus Interneten nabigatzeko
marka bat da, baina hori baino
gehiago ere bada; komunitate
bat badagoela adierazten du**

mentu, eta guk horiekin .eus-en erabilera sustatu eta sakondu nahi dugu», esan du Josu Walio Pizarro fundazioko zuzendariak.

Baina PuntuEUSen helburua erabil-

tzaile kopuru jakin bat lortzea baino harago doa. Ingurune digitala euskaldun du nahi dute eta horretarako .eus lantresna bezala ikusten dute. «Euskal Interneten edo ingurune digitalean garapena izan dezan, .eus-ez gain, bidaude euskarak alor horretan presentzia izan dezan garatu daitezkeen beste hainbat lan ildo. Esate baterako, iaz PuntuEUS Behatokia jarri genuen abian eta honen bidez euskarak Interneten duen presentzia eta Internetek Euskal Herrian duen presentzia neurten dugu. Aurten ere informazio hori eguneratzen ari gara. Beraz garapena ikusi nahi dugu, horrela guk non era-

**Josu Waliño eta Manex Garaio PuntuEUS Fundazioko zuzendaria eta informatikaria. R. CALVO**

gin dezakegun ikusteko, eta hori indartzeko. Aurtengo neurketa egiten ari gara oraindik eta urte bukaerarako pare bat proiektu aurkeztuko ditugu».

PuntuEUS Behatokiari esker, hortaz, euskarak Interneten duen presenzia neurtu nahi dute, are gehiago, .eus-en presentziaren ondotik, honek Euskal Herrian duen eta izango duen eragina neurtu nahi dute.

22

Euskara Interneten

Waliñok esan bezala, aurtengo datuak biltzen ari dira oraindik, baina 2015eko datuei erreparatuta euskarak Interneten duen presentzia %17aren bueltakoa dela ikusi ahal izan dute. Fundazioitik bi irakurketa egiten dituzte; «Euskararen kale neurketan euskaraz aritzen direnen kopurua %13koa da, horrek esan nahi du Interneten eta kalean euskara erabiltzen dutenen kopurua antzekoa dela. Hori, halere, ez da kopuru ona, Interneten askoz gehiago lortu daiteke, izan ere, itzulpenen edo enpresa batek jartzen duen edukiaren bidez, kopurua altuagoa izan beharko luke. Hor badugu garapen bide bat».

Bestetik, domeinu guztietan neurtu dute euskararen presentzia eta horrela .eus-en garantzia nolakoa den ikusi dute. «.com eta horrelakoan euskararen presentzia %10 ingurukoa da, horrek esan nahi du .com eta horrelako Euskal Herriko webguneetan %10ak bakarrik daukala euskarazko edukiren bat. .eus direnen artean %88 dira euskaraz edukiren bat dutenak, hor ikusten da euskara erabiltzen dutenak .eus domeinuarekin identifikatuak sentitzen direla. Lortu nahi du guna da .eus sustatzaile izatea, beste guztiek ere .eus erabili dezaten. Hortik

ICANN erakundearekin akordioa lortzetik, 92 aitzindarietara

PuntuEus Fundazioak 2012ko maiatzean aurkeztu zuen .eus domeinuaren eskaria ICANN erakundearen aurrean eta bera izan zen 2013ko abenduan ICANN erakundearekin kontratua sinatu zuena. Lehen pauso hori eta gero, aitzindariena etorri zen. Euskara eta euskal kulturaren komunitatea ordezkatzen zuten 92 domeinu-izenak izan ziren lehenak .eus domeinua eskuratzeten. Hauek babestu zuten publikoki eta ekonomikoki .eus. 2014ko ekainaren 28tik abenduan 3a bitarte eman zen prozesu hori.

Ordutik baina, domeinua babes-ten dutenen zerrenda gizenduz joan da, eta gaur egun, Euskal Herri osoko 6.000 webgune baino gehiago dira .eus.

122

DOMEINU TOLOSALDEAN

Tolosaldeko 122 webgunetan erabiltzen dute .eus. ATARIA beraz, 122. da. Eskualdeko 14 herrian daude domeinuaren erabiltzaileak eta horietan Tolosa da erabiltzaile gehien dituena, 54.

dator PuntuEUS Behatokiaren bidez datuen garapena ezagutu nahia. Gure lanak eraginik ote duen ikusteko».

Beste domeinuak, behera

Beste datu bat ere eman du Waliñok; 2015tik 2016ra Euskal Herrian, Interneteko domeinu guztien presentzia gutxitzen ari dela «gurea izan ezik». «Gainontzeko guztiek bataz beste, %7ko jaitsiera izan dute eta .eus-ek berri, %18ko hazkundea izan du», gaineratu du.

Orain arteko hazkunderik handiena enpresa munduan eman dela ere esan du fundazioko zuzendaria. «Hazkunde handia ari gara sumatzen enpresa handietan. Behatokia bidez ikusi du gura da .eus zabaltzen ari dela, baina garrantzitsuena dena da alor guztietan ari dela zabaltzen; kulturan, era-kundeetan, kirolaren munduan... eta enpresetan ere bai, are gehiago, batez ere, enpresak dira .eus. Hau da, 6.000 horietatik %34 enpresak dira, horrek esan nahi du .eus enpresa munduan ere erabilgarria dela eta hazkunde handiena hor ari da ematen».

Euskararen normalizazio bidean, ezinbesteko tresna da beraz, .eus. Eta ATARIA gaur, atzo bezala, euskararen arnasgune izan nahi du. Euskararen normalizazio bidean, ezinbesteko tresna.

«DOMEINUAK EUSKARAREN BIZIRAUTE DIGITALA BERMATZEN DU»

JOSU WALIÑO PIZARRO

PUNTUEUS FUNDAZIOKO ZUZENDARIA

Euskal Herriko 6.000 webgune inguruk erabiltzen dute .eus; %3. PuntuEus Fundazioko kideak orain arteko ibilbidearekin kontentu daude, baina lana badagoela diote.

PuntuEus Fundazioaren epe motzeko erronka .eus-en zabalkundea indartzen jarraitza izango dela dio Josu Waliñok (Zumaiako, 1972). Izan ere, Euskal Herrian 235.000 Interneteko domeinu daude eta %3 besterik ez da .eus. Aurrera pauso handiak eman dituzte Internet euskalduntzeko, baina .eus-ko erabiltaile kopuruan gora egitea da fundazioaren nahia.

2014ko abenduaren 3an, Euskara-ren Nazioarteko Egunean hain zuzen, zabaldu zen .eus domeinua. Egun horretatik aurrera domeinua edonork eska zezakeen, zein puntutan dago orain?

Orain arte zabalkunde lanean aritu gara batez ere. Lurraldekotasunari begira saiatu gara .eus-ek presentzia ahalik eta handiena izan dezan Euskal Herrian. Gure nahia da lurralde guztietako erakunde guztietan presente egotea eta hein batean lortu dugu. Eusko Jaurlaritzak eta hemengo foru aldundiak erabiltzen dute, baina baita Nafarroako Gobernuak ere. Ipar Euskal Herrian presentzia gutxieago dugu, udalerri nagusiek erabiltzen dute gehienbat, Baiona, Hendaia eta horrelakoek.

Zabalkunde horri dagokionez, kuantitatiboki zabaltzeaz gain, kualitatiboari ere eman diogu garrantzia. Hau da, gizarteak domeinua kalitatekotzat hartzea eta gizartean eragina izatea da gure nahia. Ezagutza hori lortzea da gure helburua, izan ere, orain dela bi urte jaio zen .eus, baina garrantzitsua da jendeak zer den entzutea, jakin behar du zer den .eus. Interneten dagoen

«.eus domeinuak toki bat egiten dio euskarari Interneten eta urrats bat gehiago da bere etorkizunean»

«Bai euskarari eta baita euskal komunitateari ere sendotasuna ematen dio Interneten»

«Inguruko mundu digitala euskalduntzeko lanean ariko gara eta horretarako proiektuak garatuko ditugu»

zerbait izateaz gain, kalean ere entzun behar da. Horretarako oso garrantzitsua da kalitatearen alderdia lantzea, hau da, domeinu oso esanguratsuak

izatea; Eusko Jaurlaritzarena bezala, beste erakunde batzuk, enpresa handiak.. Erreferentzialak diren webguneak, alegia. Baita ATARIA bezalako webguneak ere; gizarteak egunero konsultatzten dituen webgune horiek .eus izatea lortu behar dugu.

Zer eskaintzen du .eus domeinuak, zergatik da garrantzitsua?

Eremu askotan du garrantzia. Garrantzitsua da euskararentzat, euskarari toki bat egiten diolako Interneten eta bere etorkizunean urrats bat gehiago delako. Euskararen biziraute digitala bermatzen laguntzen du, azken finean. Internet erraldoia da, gaur egun 300 bilioi webgune baino gehiago daude eta unibertso horretan euskara ez galtzeko da garrantzitsua .eus. Domeinuak euskarari presentzia bat ematen dio, matrikula bat ezartzen dio ikuspegi orokor batetik begiratuta. Baina norbanako ikuspegi batetik ahalbidezten duena da kalean ikusaraztea .eus-en bidez euskarak toki bat duela Interneten. Erabiltzaileari .eus den webgune batek gertutasuna adieraziko dio, komunitateko parte dela sentituko du eta webgunean euskaraz aritzeko aukera izango du. Beraz, bai euskarari eta bai euskal komunitateari sendotasuna ematen dio Interneten.

Zenbat .eus daude orain?

Momentu honetan 6.000 webgune inguru daude. Kopuru duina dela uste dugu. Azken hiru urtetan 1.000 domeinu berri baino gehiago sortu dira eta horrek domeinuen mundu horretan sortu du nolabaiteko zalaparta.

Zeintzuk dira PuntuEus Fundazioaren etorkizuneko erronkak?

Epe motzera .eus-en zabalkundea indartzea. .eus oraindik, Euskal Herrian presentzia txikia duen domeinua da. Euskal Herrian 235.000 Interne-teko domeinu daude, eta horietatik 6.000 dira .eus, %3. .com eta .es dira domeinu nagusiak. Beraz, gure erronka orain zabalkundea indartzea da. Bestetik, datozen urteetan .eus-eko erabiltzaile kopuruaren gora egin nahi dugu. Ingoruko mundu



«Oso garrantzitsua da gizarteak egunero konsultatzaten dituen webgune horiek.eus izatea»

digitala euskalduntze-ko lanean ariko gara eta horretarako proiektuak garatzen jarraituko dugu.

Lan zaila.

Zaila da bai, domeinuen mundua oso berezia baita. Merkatu berezia. Ezjakintasun handia dago, jendearentzat domeinu bat da webgune bat martxan jartzeko behar den zerba eta askotan ezjakintasuna da nagusi eta beraz, informatikarien esku uzten dute guztia.

Orain arteko lanaren balorazio

ona egiten duzue, beraz.

Oso positiboa. Oso esanguratsuak diren webguneak, instituzionalak direlako edota euskal kulturaren oso esanguratsuak direlako, .eus dira. Eta hazkunde handia ari gara sumatzen empresa handietan. 6.000 horietatik %34 enpresak dira, horrek esan nahi du .eus enpresa munduan ere erabilgarria dela.



Irun

Jose Eguino, 2 · 1 A
943 612 831

Tolosa

Arostegieta, 6 BIS · 1
943 672 999

www.clinicabinai.com

**Zure hortzen osasuna
eskurik onenean**



Inplanteak



Ortodontzia



Hortzetako estetika



Protesien laborategia



PADI-Osakidetza



Animalia arriskutsuak gurean

Zorionekoak gu, ez garela lurralde arriskutsu batean bizi. Zorionekoak gu, perretxiko bila goazenean, lasai makurtu ahal garela, atzetik berebiziko lehoitzarra gu jatera eterri gabe. Zorionekoak gu, menditik barrena lokatz eta urez busitako galtzerdiekin paseatu ahal dugulako, etxera eterri eta gure behatzak euli baten beldar gosetien elikagai izan gabe. Zorionekoak gu, hondartzetan lasai igeri egin dezakegula, azpitik metro eta erdiko marrazo handiaren haginkadetan erori gabe. Benetan lurralte seguruan bizi gara. Baino gero biologo bezala gizarteari ikusmira bat botatzen diozunean gauzak aldatu egiten dira.

Zenbaitetan, badirudi Amazonas erdian bizi garela. Benetan egoera kaitiko eta gurasoen histeria kolektiboko eszena ugari ikusi ditut erle txiki bat parke batean agertzen denean. Edo suge gorbatadun (*Natrix natrix*) koitadu batek eskola bateko patioan burua ateratzen duenean, hiru urteko umeak gosaltzera datorren harrapakari erraldoi bat balitz bezala. Lasai euskal gizarte naturzalea, gurean dugun animaliarik arriskutsuena, arriskutsua esateagatik, suge gorria izango da, ugaztun txikiez elikatzen den suge pozoitsua da, baina bere pozoia ez da hilgarria osasuntsu dagoen pertsona batentzat, gainera oso gutxitau topatzen gara berarekin eta urtean Tolosaldean oso pertsona gutxi hiltzen da suge honen hozkadaz... badezpada eskeletan begiratu baina... 2016an oraingoz ez da inor hil... ezta 2015ean ere.

Arriskutsuak ere badira litzortzarrak (*Vespa crabro*), gurean dugun litztor handi bat da, herriguneak ez ditu gustuko eta zail da bere habia bat topatzen. Hori bai, bere eztenkada nahi-kor mingarria da, bai eta ere bere hozkada, eta noski, bere habia batean bu-



KETA

rua sartzen baduzu, oraindik arriskutsuagoa da. Zer esan nahi du honek, gure inguruaren litzortzar bat baldin babil, garrisika hasi, gure umetxo politak babestu eta animalia akabatu behar dugula? Agian, gizartearen eskoletan intsektu eta bestelako bizidunei buruzko ikastaroak eman behar ditugu, inguruaren ditugun «xomorro nazkarri» eta «bitxo arriskutsuak» benetan zer diren ikas dezaten. Hala ere, gomendio bat edo beste baditugu biologook, gurean dugun *xomorrofobia* kroniko hau desagertzeko.

Lehen gomendioa: xomorroak ez dira gurekin elikatzen, beraz, ez dira guri zuzenean erasotzera etorriko. Ez, mendizale eta arropa termiko zale maitea, armiarma batek ez dauka inongo interesik zuri hozka egiteko, eta kasualitatez, xomorro baten hoz-

kadarekin esnatzen bazara, lasai egon, ziurrenik arkakuso txiki bat izango zen, edo moskitoren bat. Ziur ez dela sabaitik behera, hamar zentimetroko tarantulatzarra jaitsi eta denbora-pasa zegoelako edo, zuri hozkada egin. Araknidoek gorroto dute *Homo sapiens*-aren azal gogor eta beroa, nahi duten bakarra, beraien saretxoa egin eta eulitxo koitaduak janetxizitzea da, eta ahal bada eme bat bilatu, gainka egin eta errromantikoki honen atza-

parretan hiltzea. Ez dute ez interesik zure azalari hozka egiteko. Eta parkean txirristatik behera zabiltzan ene etorkizuneko umetxoa bazara, pentsa gu baino ehunka aldi ztxikiagoa den mundu interesgarri bat badugula hanka azpian, tximu arraoak garenok, mundu hau zapaldu aurretik jada hor zegoena eta milioika urte iraun dituena, bere txikitasunean.

«Xomorroak ez dira gurekin elikatzen, beraz, ez dira guri zuzenean erasotzera etorriko»

«Gurean dugun animaliarik arriskutsuena, arriskutsua esateagatik, suge gorria izango da, baina bere pozoia ez da hilgarria»



**JON ANDER
GALARAGA**
BIOLOGOA

Hartu lupa bat, hartu poto bat eta hasi eskolatik bi pausotara dagoen oin azpiko benetako Pokemonak ehizatzen, sailkatzen, marrazten eta beraiez ikasten.

Zergatik ote dute koleopteroek lehen hegal parea hain gogorra? Zergatik bizi dira erlauntzeten erleak? Nola-koak ziren orain milioika urteko odonatua? Etorkizun hurbil batean, txirristatik behera dabilen ume hark, txirrista utzi, nerabezaroan sartu eta bere etorkizunari buruz pentsatzen hasiko da, nerabezaroan beti etortzen den eulia buru inguruaren hegan hasten zaion arte. Orduan nerabe hark, eulia akabatu ordez, honen bigarren hego pareari begiratuko dio, «alterioak» dituela konturatuko da eta diptero baten aurrean dagoela ikusiko du... eta kolpe batez paretaren aurka zapaldu ordez, leihoa ireki eta diptoren diseinua miretsiz, irteten utziko dio. Zorionekoak gu, dugun animaliarik arriskutsuenak, gauean zerbeza bat baino gehiago edanda gidatzten dabiltzan *Homo sapiens*-ak direlako. Zenbaitetan tigrez betetako ohian batean sartzea segurua izango den arren.

Agenda

OSTIRALA URRIAK 28

ALEGIA

I. ARGAZKIRALLYAREN

SARI BANAKETA

20:00. Sari banaketa ekitaldian emango dira ezagutzera irabazleak. Guztira, 14 pertsonen parte hartu zuten: 6 gaztek eta 8 helduk. Sariak, hauetan izango dira, helduen eta gazteen mailan: bilduma onena, argazki onena eta alegría baten argazki onena.

BERASTEGI

KULTUR ASTEA

16:30. Bizikleta ginkana eskola atarian (norbera bere bizikletarekin). Betiko jokoak izango dira haurrentzat, frontoian.
19:30. NUN-eko expedizioa-India ikus-entzunezkoa, Iñigo Lizarribar, Ibon Zubala eta Mikel Legarretaren eskutik, erabilera anitzeko gelan.

26

IBARRA

KIROL ELKARTEAREN

50. URTEURREN FESTA

22:00. Mus Txapelketa bazkideentzat, elkartean.

IKAZTEGIETA

BILERA

20:15. Tolosaldeko Giltzarriaren ekimenekin jarraitzeko bilera egingo da, udaletxe zaharrean.

TOLOSA

MUSIKA

22:30. Occhi di Farfalla taldea igoko da Bonbereneako oholtzara. Sarrera: 6 euro.

ANTZERKIA

22:30. Casas de juglares eskainiko du Birloque taldeak, Alondegia tabernan, Gaztelerazizango da.

OREXA

KULTUR HAMABOSTALDIA

18:00. Gaztaina biltzea.

20:00. Gazta eezberdinaren aurkezpena eta dastaketa, Montxo Lizeagaren eskutik.

Ondoren. Afari-merienda Gari eta Iñaki trikitilariekin.

LARUNBATA URRIAK 29

ANOETA

URRIFEST

18:00. Zerbeza feria plazan. Zerb, Gar Gar, Olañeta eta Etxeko Bob's Beer.

21:00. Afaria eskainiko da gaztetxean. (Afari begetarianoa egongo da nahi duenarentzat).

23:00. Pandub selektah eta lagunak. Oharra: *Pitxarra etxetik eramatzen saiatu*.

BERASTEGI

KULTUR ASTEA

10:30. Garagardoa etxean egiteko tailerra (lehen saioa), Axier Saizarren eskutik, Urepel elkartean.

15:00. Mus Txapelketa herrikoia, Ategin.

17:00. Printze txikia/filma haurrentzat, erabilera anitzeko gelan.

19:00. Pintxo potea.



23:00. Musika iluntzea, Katez eta Elizagoien ahizpak taldeekin, Urepel elkartean.

IBARRA

IRTEERA

09:00. Amurriora irteera antolatu du Bizi-Nahi elkarteak. Gasteizera abiatuko dira, eta bazkaria izango dute Ruperto de Amurrian. Arratsaldean Durango bisitatuko dute.

KIROL ELKARTEAREN

50. URTEURREN FESTA

12:00. Giroarte dultzaineroekin kalejira, elkartetik abiatuta.

14:00. Bazkideen argazkia, eta ondoren bazkaria. Bazkaldu eta gero txaranga.

TOLOSA

TOLOSA GOXUA

09:00-14:00. Tolosako gozogileen bilgune den azoka berezia, Trianguloan.

09:00-10:00. Sagar tarta lehiaketa: tartak lehiaketara aurkezteko tarteak. Parte hartziale bakoitzari opari bat emango zaio.

10:00-11:00. Epaimahaia tartak dastatzeko denbora.

11:30. Sari banaketa.

12:00. Abesbatza kubatarra.

12:30. Goiz osoan zehar tolosako gozogileak Pitxi-pitxi tolosarrak egiten egongo dira, eta bertaratzen direnen artean 4.000 banatuko dituzte. Kubako bandera eta ikurrinaren errepresentazio bat egingo da Pitxi-Pitxiekin.

KANTU JIRA

12:00-14:00. Kantu jira herrikoia egingo da Tolosako Alde Zaharrean, Maria Luisa Agirre doktorearen plazatik abiatuta.

BONBERENEAK XVI. SKATE FESTA

16:30. XVI. Skate Txapelketa. Graffiti erakustaldia egun osoan zehar.

MUSIKA

22:30. Swo Hai eta Ziribilo Sound taldeen kontzertua, Bonberenean. Sarrera: 6 euro.

OREXA

KULTUR HAMABOSTALDIA

17:00. Ene Kantak taldearen *Astronautak* bideo emanaldia izango da haurrentzat, Ganbaran.

22:00. Amama filmaren emanaldia, Ganbaran.

ZIZURKIL

MIKOTEATRO

19:00. Bartzelonako Institut del Teatreko ikasleek eskainiko dute ikuskizuna, Atxulondo kultur etxean. Sarrera doan izango da, baina amaieran borondatea jasoko da.

IGANDEA URRIAK 30

BELAUNTZA

AZOKA BEREZIA

10:00-14:30. Barazkiak, animaliak eta artisautza postuak izango dira ikusgai, guztira 20 bat postu. Trikitilariek alaituko dute goiza.

Ondoren. Bazkaria egingo dute Ostatuau.

BERASTEGI

KULTUR ASTEA

11:45. Ana Iparragirre organo jolearen eta Nerea Barriola sopranoaren emanaldia, San Martin parrokan.

17:00. Izeba teklakuskizuna, musika eta jolasak tarteko, eskolako gimnasioan.

ZINEMA

PRINTZE TXIKIA

Larunbata (17:00).
Haurrentzako zinema
euskaraz.

**Amasa-Villabona,
Gurea.**



FLORENCE FOSTER JENKINS

Larunbata (22:00).
Igandea (19:30).
Astelehena (21:00).
Ikuslearen eguna.

**Amasa-Villabona,
Gurea.**



19:00. *Bipoliedro.* Txistua eta akordeoia
musika emanaldia, erabilera anitzeko gelan.

IBARRA

KIROL ELKARTEAREN

50. URTEURREN FESTA

Meza hildako bazkideen omenez, San
Bartolome elizan.

Ondoren. Hamaitakoa erretirodunei, Bizi
Nahi elkartearen.

11:00. Toka eta Bola Txapelketa irekia.

OREXA

KULTUR HAMABOSTALDIA

Goizean. Oresa-Uitztibilaldia egingo dute.

Ondoren. Bazkaria Uitzin bertan.

ASTELEHENA URRIAK 31

IKAZTEGIETA

IRTEERA

08:30. Zubitik aterako dira autobusean
Gernikara eta Azoka Berezian bisita egingo
dute.

14:30. Bazkaria, Casino de Mundaka
jatetxean.

Arratsaldean. Mundaka herria bisitatuko
dute.

OREXA

KULTUR HAMABOSTALDIA

22:00. Kenpa Junkera eta Sorginak taldeak
ikuskizuna eskainiko dute.

LARRAMENDIKO FESTAK

OSTIRALA, URRIAK 28

- 17:30.** Txokolate jatea.
18:30. Txupinazoa, buruhandiak eta
dultzaineroak.
19:00. Pintxo potea.
20:00. Easo jazz orkestra.
23:30. Konbenio del metal eta Izberg
taldeen kontzertua.

LARUNBATA, URRIAK 29

- 10:00.** Diana, dultzaineroekin.
12:00. Ume jolasak.
13:00. Txaranga.
14:00. Auzo bazkaria.
16:00. Pituxa Clowntu kontalari, Bazen
behin clown taldea.

IGANDEA, URRIAK 30

- 10:00.** Diana, Tolosako txistulariekin.
11:00. Patata tortilla lehiaketa.
Saria: arkumea edo txuleta.
Parte hartzaile bakoitzak bere materiala
eraman beharko du.
14:00. Kuadrilla bazkaria.
16:00. Ghanako ipuinak,
euskaraz eta Ashanteeraz.
(Familiei zuzendua).
17:00. Playback eta karaokea.
18:00. Buruhandiak.
19:00. Jain amaiera.

OLARRAINGO FESTAK

OSTIRALA, URRIAK 28

- 19:30.** Txupinazoa.
Ondoren, poteoa elkartean.
22:00. Mus Txapelketa.

LARUNBATA, URRIAK 29

- 21:00.** Auzo afaria.
Kantu afaria trikitilariekin alaitua.

IGANDEA, URRIAK 30

- 09:30.** Mendi bizikleta trabelsia.
11:00. Hamaitakoa eta ume jolasak.
14:30. Bazkaria, bertsolari
eta trikitilariekin alaituta.

48. ABESBATZA LEHIAKETA



OSTIRALA, URRIAK 28

19:30. Abesbatza lehiaketan musika
profanoaren modalitatean parte hartuko
dutene ahots taldeen emanaldia izango da,
Leidorren.

LARUNBATA, URRIAK 29

- 11:00.** Santa Klara elizan, erlijio-musikaren
modalitatean parte hartuko duten ahots
taldeen emanaldia.
16:00. Leidor antzokian, polifonia
modalitatean parte hartuko duten ahots
taldeen emanaldia.
19:30. Leidor antzokian, folklore
modalitatean parte hartuko duten ahots
taldeen emanaldia.

IGANDEA, URRIAK 30

- 11:00.** Musika profanoaren modalitatean
parte hartuko duten ahots taldeen
emanaldia.
16:00. Polifonia modalitatean parte
hartuko duten ahots taldeen emanaldia.
19:30. Folklore modalitatean parte hartuko
dutene ahots taldeen emanaldia.

ASTELEHENA, URRIAK 31

- 11:00.** Santa Klara elizan, erlijio-musikaren
modalitatean parte hartuko duten ahots
taldeen emanaldia.
17:30. Aurkezpena, Topic zentroko 4.
solairuan. Abesbatza Musikaren 11. Mundu
Sinposioa-Bartzelona 2017.
19:30. Santa Klara elizan, kontzertua KUP
taldea abesbatzaren eskuikitik.

ASTEARTEA, AZAROAK 01

- 11:30.** Leidor Antzokian, lehiaketaren
amaiera saloa eta sari banaketa. Ekitaldiari
agur jaunak abesten emango zaio amaiera.
Jarraian. Abesbatzen bazkaria, Zerkauzian.
19:00. Aita Frantziskano elizan, Bel Canto
Choir Vilnius (Lituania) kontzertu korala.

ETA ez dago eta zer?



AMAIA AGIRRE ARRASTOA
HARITZ-EKO KIDEA

Nahiz ta orain 5 urte iragarri ETAk bere su-etena zabalik dago guardia zibil ta polizien erretena. 6.000 jantzi beltz eta berdek hartu zuten hona trena foruzain eta ertzainak batuz ia hirukoizten dena. Zipre ta gero Europako herri militarizatuena ojala balitz arma arloan birjina ta indigena. Ze kolektibo da herrigintzan txapel gorri nahiz beltzena babestu ordez beldurtu eta gure bizkar bizi dena.



Doinua

Haizea dator ifarraldetik

Flip-atzen!

Water Bottle Flip. Ez dakizu la zer den? Euskaraz esango dizut orduan. Ia erdinaino betetako plastikozko botila bat esku batez tapoitik hartu, ariera bota, eta itzuli bat eman ondoren, edozein azaleratan zutik uztea helburu duen moda dela esan daiteke. Erraza dirudi ezta?

Baina, nik ez zaituztet hori egitera bultzatu nahi, baizik eta moda berri honen inguruan zuen burua kontzientziatzea nahi dut. Zer nolako helburua du? Denbora-pasa ona izan daiteke, eta aitzakia ederra otordu batean mahaiaren inguruan gaudenean (lagunekin, familian, taldekiekin...) mugikorra alde batera uzteko. Hala

ere, oraindik ere entretenimendurantz jotzen dugu, eta gure ingurukoek diotenari ez diogu jaramonik egiten; eta hori gutxi ez balitz, enbarazu egiten diogu, botilak ma-haia behin eta berriz jo-tzean ateratzen duen hotsa oso desatsegina baita. Botilarekin jolastu nahi dugu, behingoagatik zu-tik utzi; ingurukoei sekulako abilezia dugula era-kutsi.

Trebetasunak trebeta-sun eta modak moda, bazkalostean botilak alde batera utzi eta gure ingurukoekin elkar komunikatzeko moduak eta egoerak aurkitu behar ditugu. Polita izan daiteke horrelako jolasetan murgiltzea, baina norberak jakin behar du zein den momentu eta leku egokia horretarako.

Izan ere, izenak berak ere hitz joko-rako balio du. Flip-atzen! Txundituta geratzen naiz futbol taldeko umeek, eserlekuan daudenean, partidari eta entrenatzaleari jaramonik egiten ez dietenean, eta urez betetako botilekin

jolasean hasten direnean. Txunditura, sare sozialetan jende askok edozein modutara (zortzi botila aldi berean jauntiz, buruz bera jarriz...) eta edozein lekutan, jolas honen helburua betetzea lortzen dutela ikustean. Txunditura haurrek tabernara plastikozko botila hutseten bila etortzen direnean...

Ditxosozko modak!

Beraz, eman diezaiogun buelta egoerari, ez botilari noski. Izan dezagun jarrera on bat gertuko jendearekin gaudenean, komunika gaitezen botilak, telefonoak eta entretenimendurako bestelako materialak alde batera

utzita. Jakina da modak etorri eta joan egiten direla. Pokemonak ere azaldu ziren, nahiz eta jada alde egin duten askoren mugikorretatik. Ea posible egiten dugun beste zerbait modan jarri baino lehen guk botilak birziklatzea, eta haurrek (eta hain haurrek ez direnek ere) beren buruhausteak ez izatea. Bestela, botilek egiten duten moduan, flip-atzen jarraituko dugu.



JOSU ARTUTXA
IKUS-ENTZUNEZKO
KOMUNIKAZIOKO
IKASLEA

Eman diezaiogun buelta egoerari, ez botilari noski. Izan dezagun jarrera on bat gertuko jendearekin gaudenean, komunika gaitezen botilak, telefonoak eta bestelako materialak alde batera utzita

KOMIKIA OSKAR TENA



Ni? eta zergatik ez?

Egunero moduan nire lanorduak bete eta gero, etxerantz abiatu naiz. Kotxean sartu eta lasai eseri naiz pilotuaren eserlekuan gaurkoa ere egin dudala pentsatzuz. Mugikorra begiratu eta kuadri llakoaren deia ikusi dut. «Zer ote du honek?» nire buruari galdera eginez deia erantzun diot. Telefonoaren piluzeak entzun ditudan bitartean, kontatu nahi didan hori imajinatzzen hasi naiz. Segundo gutxiren buruan, telefonoa harta eta hara horluzatu didan proposamena: ea ATARIA astekarirako iritzi artikuluak idazteran animatuko naizen! Hori entzutean, nire aurpegia kotxeko ispiluan isolatuta ikusi dut; WhatsApp aplikazioan ere ez dago hori koloreko aurpegitxorik berau deskribatzeko.

Lagunak, nigan ohikoa ez den isiltasun luzeak sortu dion ezinegonak eraginda, «*bueno, zerbattere esan beharkoian ba?*». Orduantxe erreakzionatu dut: «*Nik nola idatzikoñat ba? Beñe eztiñat in ta! Etxekiñat... Pentsatu beharra zeckenat!*». Bizirik nagoela frogatzean, lagunaren ahotsak betiko tonua hartu du

eta erantzuna hemendik egun batzuetara eman behar dudala esan dit.

Buruari hainbat buelta eman eta gero, hementxe ari naiz ba, ordenagailuaren aurrean nire lehen testua idazten. Ez dakit zeini, baina norbaiti, nik esateko edo idazteko dudana interresgarria izan daitekeela iruditu zaio eta orain ezin diot ez idaztearen itsuskeria egin. Berak nigan konfiantza apur bat jarri badu, zergatik ez nik nire buruarengan beste pixka bat jarrir?

Zuri berriz irakurle, iritzia ematen hasi aurretitik, baimena eskatu nahi nizuke; ez bainaiz zu baino gehiago sentitzen hemen idazteagatik eta garbi baitaukatu zu izango zarela nire kezka edo esan beharreko guztia irakurri eta jasoko dituena. Nire errespetu osoa zordizut beraz, eta jakizu,

hemendik aurrera kalean edo barra iskin batean ikusten banazu eta barrua husteko beharra sentitzen baduzu, zuk ni irakurtzen nauzun bezala, nik zu irakurriko zaitudala, zuk ere, niri eman didaten bezala eskubide osoa baitaukazu zure barne kezkak azaleratzeko.



MIREIA GARAIBURU
HEITZTAILEA

Jakizu, hemendik aurrera kalean edo barra iskin batean ikusten banazu eta barrua husteko beharra sentitzen baduzu, zuk ni irakurtzen nauzun bezala, nik zu irakurriko zaitudala, zuk ere, niri eman didaten bezala eskubide osoa baitaukazu zure barne kezkak azaleratzeko

EGURALDIA

OSTIRALA

Udazken ukituko eguraldi ederra izango dugu. Goizean goiz behe laino itxi samarra izango dugu, baina hala ere, eguerdirako altxako du. Ondoren, ipar-ekialdeko haizearen laguntzari esker temperatura gozoak izango dira: 22-23 gradu. Zeruari begiratuta ez du inolako aitzakiarik izango, goi hodeitsuren bat kenduta, zerua urdin-urdin. Gauean ez du asko freskatuko.



**IKER
IBARLUZEA**
EGURALDI
MUTILA

30

ibiliko da, eta horrek eragingo du temperaturan. Zeruari dagokionez aitzakia gutxi, behe lainoa ez da itxia izango. Segituan altxako du, eta zerua urdin geratuko da. Udazken ukitukoabaino, udako eguraldia.

IGANDEA

Uda ukituko eguraldiak jarraipena izango du. Goiza ez da hotza izango, minimoak 12-13 gradutan geratuz, eta egunean zehar, hego-ekialdeko haizearen laguntzari esker gora egingo du temperatura 24-25 gradutaraino igoz. Oso-oso eguraldi goxoa egingo du, eta zerua erabat urdin mantenduko da egun guztian zehar.

ASTELEHENA

Aldaketa gutxi dator, temperaturak zertxobait behera egingo du, 22-23 gradutan geratuz. Hala ere, hego hai-za ibiliko zaigu gutxi edo asko, eta ez dugu behe laino asko espero eta zerua urdin izango da. Gau parterako hodei gehiago espero da, baina inolako ondoriorik gabe.



IRAGARKI LABURRAK

LANESKAITZA

Zapata dendarako. 30 eta 40 urte bitarteko neska euskaldun bat behar da Tolosako zapata denda batean lau hilabetetan lanaldi osoan lan egiteko. Salmentan esperientzia izatea baloratuko da. Interesatuak bidali curriculuma: zapatadendatolosa@gmail.com

OHARRA

ORDUALDAKETA

Larunbatetikiganderako gauean ordua aldatu beharko da. Ordulariak ordubete atzeratu beharko ditugu. Hiruretan, ordubiatik izango dira.



FARMAZIAK

URRIAK 28, OSTIRALA

TOLOSA. Bengoetxea, E. Kale Nagusia, 7. Telefonoa: 943 67 06 48.

URRIAK 29, LARUNBATA

TOLOSA. Bengoetxea, E. Kale Nagusia, 7. Telefonoa: 943 67 06 48.

URRIAK 30, IGANDEA

TOLOSA. Olarreaga, M. Martin J. Iraola etorbidea, 10. Telefonoa: 943 67 24 38.

URRIAK 31, ASTELEHENA

TOLOSA. Bronte, C. Korreo kalea, 20. Telefonoa: 943 67 60 13.

**EGUNERO GAUEKO
GUARDIAKO FARMAZIA:**
TOLOSA • Morant, R.
Zabalarraga Lorategiak, 1.
Tel: 943 67 38 49.

IRAGARKI LABURRAK

Zure iragarki laburra argitaratzeko deitu **943 65 56 95** telefono zenbakira, idatzi ataria@ataria.info helbidera edo pasa ATARIA-ko bulegotik.

ATARIA IRRATIA

OSTIRALA

09:00. Pasahitzoa magazina. Iker Ibarluzearen eskutik eguraldia, solasaldi politikoa. Tolosaldea Garatzen, Tolosako azokari eskainitako tarteak, eta lehiaketaren atala, aste honetako sariak Tolosako Azokako postuetako produktuekin osatutako saskia eta Tolosa Goxua azoka berezia dela eta, Rafa Gorrotxategiren txokolate txuridun pastela.

11:00. Hamalketakoa. Gure eskualdeari begirada: Gaurkoan, Tolosa.

12:00. Entzuteko Jaiok musika saioa.

16:00. Zebrabidea.

18:00. Goizeko saioak utzitako onena.

20:00. Kantazgora musika saioa.

Tolosaldeko musikarien proposamenekin osaturiko saioa.

LARUNBATA

10:00. Asteak utzitako onena.

12:00. Hauspo artean. Ander Malbadik gidatutako trikiti saioa.

Ondoren. Trikitia.

14:00. (H)ari naizela.

Imanol Artolak gidatutako bertsosaiola.

16:00. Entzuteko Jaiok.

18:00. Entzuteko Jaiok.

IGANDEA

10:00. Asteak utzitako onena.

16:00. Entzuteko Jaiok.

17:00. Kantazgora.

Eskualdeko musikarien proposamenak.

18:00. Entzuteko Jaiok.

ASTELEHENA

Euskal musika egun guztian zehar.

20:00. Hauspo artean. Ander Malbadik gidatutako trikiti saioa.



URTE ASKOAN IÑIGO!

Iñigo Guridi Lasa (Amasa-Villabona).

Besarkada estuak eta animoak zure herritik! Maite zaituztegu!



URTE ASKOAN!

Iñigo Guridi Lasa
(Amasa-Villabona).

Iepa Iñigo!! Aurten ere,
heldu da zure eguna, eta
guk, etxeakoak, beti dugu
gogoan, eta nola ez denon
parte zorionak!!!

Urte askotarako
bihotz-bihotzez....

Lastre arte,

**Besarkadak eta muxu
erraldoiak!!!
Denak zuretzako!!!**



sarrerak

Atarikideentzat 2 tarta ditugu

SAI-ZAR

GORO-STI



ataria jarriko da sardinunekin harremanetan

TOLOSA GOXUA

Gorostia: Gambeta
• Maria Rosario Zelaia (Amezketa)

Saizar: Pantxineta
• Joxe Antonio Urretabizkaia (Amasa-Villabona)

Urriak 29, larunbata



Ondo Mec-ek, Adunako mekanika industrialeko enpresak,
hazkunde prozesuan murgilduta,
Adunako lantegirako ondorengo langileak behar ditu:

- CNC fresatzalea, Heidenhain kontrola. Erref. "Fresatzalea"
- CNC mandrinadorea, Heidenhain kontrola. Erref. "Mandrinadorea"
- CNC tornulari bertikala, Siemens kontrola, Erref. "Tornularia"

Ondainsari interesgarria, hautagaiaren balioaren araberakoa,
ian giro egonkorra eta berehala lanean hasteko aukera
eskaintzen da.

Aurreikalar horretako lan eskamentua eskatzen da, eta baita
motibazioa, ikasteko gaitasuna, erantzukizuna eta autonomia ere.
Hautagaien curriculm vitae-a posta elektronikoz bidali
beharko dute seleccion@ondozabal.com-era, bertan zehaztuz
eskatzen den lanpostuaren erreferentzia.
www.ondozabal.com

Euskara
‘Tolosaldeko Ataria’ .eus
da gaurtik aurrera,
eta emailek ere luzapen
hori izango dute

Euskara
Josu Waliño: «.eus
domeinuak toki
bat egiten dio
euskarari Interneten»

2016-10-28
570. zenbakia
107.6 fm
www.ataria.eus

ataria.eus

